

puntu



Joxemari Iturralde idazleari elkarrizketa

Jaiotza inguruko doluaren gainean berbetan



EUSKARAZ BIZITZEA BERMATZEAREN ALDE

"Epaitegien esku-hartzearen aurrean, herritarren eskubideak erdigunean" jartzeko, manifestaziorako deia egin du Euskalgintzaren Kontseiluak. Bat egin dute hainbat erakundek eta euskararen alde lanean diharduten herritarrek / 2

Bihar, zapatua, Bilbon egingo den manifestazioarekin bat egin duten erakundeetako hainbat ordezkari debagoiendar, atzo, Bergarako epaitegiaren aurrean. XABIER URZELAI



Palestinarren aldeko aldarriak Oñatiko kaleak bete ditu asteen. ENEKO AZURMENDI

"Genozidioa gelditu" eta Palestina askatzea eskatu dute kaleetan

Debagoiengan bizi diren hainbat palestinar ere han izan dira; tartean, Oñatin bizi den Mustafa Walwil / 3

Azken 100 urteetako gertakariak oinarri, fikziozko eleberria ondu du John Andueza idazleak / 34



Goiena sinesgarria eta plurala dela diote gertuko informazioa baloratzen duten erabiltzaileek / 4

SINADURAK

	OIER ZUMARRAGA / 12
	XABIER ARREGI MURGIÓNDO / 6
	XABIER IGARTUA / 31
	IBON ARRUPE / 9
	MIKEL ARREGI ASKASIBAR / 40



'ETXEBIZITZA ETA ERAIKUNTZA' GEHIGARRIA / 17

Hemen
garbiketak
Ura bezain garbia





T.- 943 71 48 45



Deialdiarekin bat egin duten eragileetako zenbait ordezkari eta euskararen normalizazioan ari diren hainbat debagoiendar. X.U

Oldarraldiaren aurrean, Bilbora, hizkuntza eskubideak defendatzera

"Epaitegien esku-hartzearen aurrean", euskararen normalizazioan aurrera egin eta herritarren eskubideak erdigunean jartzea aldarrikatzeko manifestazioa egingo da bihar, Bilbon, 17:00etan hasita eta Euskalgintzaren Kontseiluak deituta

Miren Arregi Amasorrain ARRASATE Euskararen biziberritzea helburu duten neurrien kontra auzitegietatik iritsi diren ebazpenak areagotu egin dira azken urteotan EAEn eta Nafarroan, Kontseiluak salatu duenez. Ebazpen judizial horien aurka, Euskalgintzaren Kontseiluak deituta manifestazioa egingo da bihar, Bilbon, 17:00etan, Euskaldunatik abiatuta. Deialdiarekin bat egin dute Euskal Herriko hainbat alderdi politiko, sindikatu, euskalgintzako agente zein herri eragilek. Goienak biharko mobilizazioarekin bat egin duten erakundeetako zenbait ordezkari eta euskararen normalizazioan lanean diharduten hainbat pertsona batu ditu astean. Horiek dira: Roberto Altuna, Oñatiko Udal Euskaltegiko zuzendaria; Oskar Elizburu, Arrasateko AEK-ko zuzendaria; Aintzane Lasa, Arrasateko udal

teknikaria; Maider Morras, Arrasateko alkatea (EH Bildu); Josu Leturia, zinegotzia Elgetan (EAJ); Jasone Mendizabal, Topaguneko zuzendaria; Amagoia Lasagabaster (ELA); Ibon Leibar (EHE); eta Ana Sebal (LAB). *Oldarraldiaren*

"EZ DIRA SENTENTZIA ISOLATUAK, BAIZIK ETA ESKUBIDEAK MURRIZTEKO JOERA"

IDURRE ESKISABEL, EUSKALGINTZAREN KONTSEILUKO IDAZKARI NAGUSIA

"EUSKARAZ LANEAN DIHARDUGU, GURE KONPROMISOA ETA NAHIA DELAKO"

IZARO ELORZA, OÑATIKO ALKATEA

aurrean, euskararekin bat, euskaraz bat leloarekin egingo da manifestazioa.

Udal Legearen baliogabetzea Biharko hitzorduaren berri, euskalgintzako eta bestelako gizar-

"SENTENTZIAK OZTOPATZEKO DIRA, ETA ZEINEK AGINTZEN DUEN ARGIZUZTEKO"

IRAITZ LAZKANO, UEMA-KO LEHENDAKARI OHIA

"EUSKARAK, BIZIKO BADA, OHIKO IZANGO DEN GUNEAK BEHARREZKO DITU"

ESTEPAN PLAZAOLA, BERGARAKO EUSKARA TEKNIKARIA

te eragileetako ehunka kidek eman zuten 2023ko maiatzean. "Ordurako baziren dagoeneko mobilizatzeko arrazoiak eta orduraz geroztik areagotu egin dira", azaldu dute astean Euskalgintzaren Kontseilutik. Izan ere, hautsak harrotu zituen Espainiako Konstituzio Auzitegiak EAeko Udal Legearen aurka uztailaren 6an igorri zuenak. Hark udalerrri euskaldunei euskaraz hutsez funtzionatzeko aukerak murriztu zituen, Udal Legearen 6.2 artikulua partzialki baliogabetuz. Are, urriaren 17an, Udal Legearen garapen dekretuaren kontra egin zuen EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) udalendako kolpe latza izan zen uztailaren 6koa; izan ere, Udal Legearen 6.2 artikulua euskaraz jarduteko modua ematen zien udalei, barne funtzionamendurako agiriak-eta euskaraz hutsean egitekoa. Halere, UEMAko udalek euskaraz funtzionatzen jarraitzeko asmo irmoa adierazi zuten. Halaxe hitz egin du Oñatiko alkate Izaro Elorzak: "Euskaraz funtzionatzen dihardugu, gure konpromisoa eta nahia delako". Iratiz Lazkanok, Elgetako alkate ohi eta UEMAko lehendakari ohiak, "oso kezka-garritzat" jo zuen sententzia, eta "oztopatzeko eta zeinek agintzen duen argi uzteko" estrategia baten baitan kokatzen du.

Normalizazioaren kontra

Kontseiluko idazkari nagusi Idurre Eskisabelendako ere "ez dira sententzia isolatuak, baizik eta botere judizialek hizkuntza-politika aurrerakoiak mugatzeko eta herritarren hizkuntza-eskubideak murrizteko oldarraldia". Bide beretik egin du EHUKo irakasle eta legelari Iñigo Urrutiak ere, "neurri horiek guztiak euskararen normalizazioaren kontrakoak" direla uste baitu. "Pribilegiatua den hizkuntza babesten ari dira epaileak. Hori ikuspegi judizial batetik oso arraroa da, hizkuntza gutxitua euskaraz bera delako", azaldu du.

Manifestaziorako arrazoiak

Euskalgintzaren Kontseiluak biharko manifestaziora joateko hiru arrazoi nagusi aurkeztu ditu astean egindako agerraldian: "Lehenik, botere judizialaren esku-hartzeak salatuzko". Bigarrenik, euskararen normalizazioan

aurrera egiteko, euskaraz delako egoera zaurgarrian dagoen hizkuntza. "Euskalgintza aho batez ari da esaten jauzi bat behar dela hizkuntza-politikan". Hirugarren arrazoa da herritarren eskubideak erdigunean jartzearena.

Debagoiena Bilbora

Debagoiengan ehunka herritarrek eman dute izena herrietan antolatutako autobusetan. Leintz bailaratik hiru joango dira; Oñatitik, bat; eta Bergararik bi pisuko bat eta bigarren autobus bat joango dira Bilbora. Kontseilutik milaka pertsonaren parte hartzea espero dute bihar, eta euskararen normalizazioan lanean dihardutenek ere argi dute. "Edozein hizkuntzak, biziko bada, bera ohiko izango den guneak behar ditu. Udalak, osasun-etxeak, denetarikoz zerbitzuak... Horietariko gehienetan, gaur egun gaztelania da nagusi, eta epaileen babes osoa dute. Horregatik, oso garrantzitsua da larunbat honetan denok Bilbon izatea eta oraingo oldarraldiaren aurrean nahikoa da esatea", adierazi du Bergarako euskaraz teknikari Estepan Plazaolak.

17:00etan aterako da, Euskaldunatik

Kontseiluak herritar guztiei dei egin die, bihar Bilbora gerturatu eta euskararen alde manifestatzeko. 17:00etan abiatuko da Euskaldunatik eta udaletxean bukatuko da. Ibilbidea kantu-jiratako hainbat taldek girotuko dute, eta udaletxera heltzean, Kontseiluko idazkari nagusi Idurre Eskisabelek hitzartzea egingo du. Ondoren, Iruñeko Duguna dantza taldeak gidatuta, soka-dantza dantzatzeko da, Ihintz Iriart, Sustrai Colina, Arkaitz Miner, Lorea Intxaurrendieta, Mikel Urbeltz eta Ander Blaskok lagunduta. Ekitaldia bukatuta, *Kontrapas* kantuaren kantaldia egingo da.

Mustafa Walwil: "Odola baino ez dugu ezagutu"

Mustafa Walwilen begietatik, Gazako zerrendara begira jarri da GOIENA. 1948tik gaur arteko herrialdearen egoeraz aritu da Oñatin bizi den palestinarra, eta bere ezinegonaren, minaren eta tristuraren, eta itxaropen ezaren jakitun egin gaitu

Miren Arregi Amasorriain OÑATI

Urriaren 7an Hamasek Israeli eraso egin eta Israelek kontraerasoa hasi zuenetik, Israelen eta Hamasen arteko gerrak ez du etenik izan. Hiru aste geroago, 8.000tik gora dira hildakoak Palestinan, eta elektrizitate, erregai eta ur edangarri barik, ospitaleek funtzionatzeari utzi diote Gazan. Astean, lehenengoz, Rafahko pasabidea ireki dute larri dauden palestinarrek eta atzerriko pasaportea dutenak handik ateratzeko. Israelek lurteko erasoaldiari ekin dio, hiru astez zerrenda bonbardatzen aritu eta gero.

Testuinguru horretan, Palestinarekiko elkartasuna adierazteko hainbat ekitaldi antolatu dira egunotan gure herrietan. Horietako bat astean egin dute Oñatin, eta han izan da Debagoienean bizi den palestinar komunitatea ere. Euretako bat da Mustafa Walwil. 31 urte ditu, Zisjordanian jaio zen, eta duela sei urtetatik bizi da Oñatin. "Oso harro sentiarazten nau Oñatik. Babes hau guztia sentitzea ikaragarria da; oso eskertuta gaude", zioen manifestazio bukaeran.

Hiru belaunaldi, istorio bera

1948an sortu zen Israelgo estatua, eta Walwilen aitona-amonek momentu hura bizi izan zuten.

"Kontatzen zuten zela hasi ziren juduak iristen itsasontzietan, errefuxiatu moduan. Palestina-rrek harrera ona egin zietela, lagundu egin zietela, etxeak utzi zizkietela, lurrak... eta hurrengo itsasontzian iritsi ziren juduak soldaduak zirela, armekin etorri zirela. Gauz sartu ziren herrian, eta denak hil zituzten", adierazi du. Izan ere, salatu du 1948tik

"PALESTINARRAK HIL, ETA ISRAELGO ESTATUA ERAIKI DUTE 1948TIK"

MUSTAFA WALWIL, PALESTINARRA

odola besterik ez dutela bizi izan Palestinan: "Palestinarrak hil dituzte, eta Israelgo estatua eraiki dute".

Umezaroan mina eta odola ezagutu dituela gogoratzen du Walwilek. Behin, eskolara nindoala, helikoptero israeldar batek nire ondotik pasatzen ari zen auto bati eraso egin zion. Hiru mutil hil ziren bertan. Nik dena ikusi nuen". Egunerokoa ere zaila dela dio: "Hiri batetik bestera joateko, esaterako, israeldarren kontrolak daude etengabe. Nire familiak, esaterako, Tulkarem-etik Nablus-era edo Ramallah-ra joan nahi badu, bidea oso beltza da. Ez dago se-

gurtasunik. Joan den astean, esaterako, bi mutil hil zituzten, ezergatik".

Walwilek, egoera horretan, Palestinatik irtetea erabaki zuen. "Inoiz ez da bukatuko. AEBen babesa du Israelek, eta ez da inoiz bukatuko". Eta tamalgarri egiten zaio nazioarteko komunitatearen erantzuna. "Ez gaitu inork babesten; are, herrialdeek

"LURRAK, ASKATASUNA ETA BAKEA; BESTERIK EZ DUGU ESKATZEN"

MUSTAFA WALWIL, PALESTINARRA

janaria eta sendagaiak bidaltzen dituzte Palestinara, eta, aldi berean, Israelera armak, tankeak, abioiak eta teknologia".

Gazara begira

Mustafa Wawil Gazara begira bizi da gerra hasi zenetik. "8.000 hildako, milaka eta milaka zauritu... Gaza duela 18 urtetik kartzela bat da, eta lurrगतिक eta bizitzगतिक borroka egiten dutenean, terroristak direla esaten dute. 8.000 palestinar hiltzen dituzte, gehienak umeak, eta ez da ezer gertatzen. Familia osoak desagerrarazi dituzte. Judu bat hiltzen dute, eta hori bai da arazo larria".

Palestina, bitan

Une honetan, Palestina bitan banatuta dago. Alde batetik, Gazako zerrenda dago, eta, bestetik, Zisjordanian. Gazan Hamas dago gobernuan, eta Zisjordanian Fatah. "Ziur nago gure gobernuari Zisjordanian dagoela", argitu du Walwilek. "Halere, palestinarrek ez dira ez Hamas, eta ez Fatah. Palestinarrak palestinarrek dira. Lurrak, askatasuna eta bakea. Beste herrialde batzuek dituzten aukerak izan gura ditugu, besterik ez", gehitu du Walwilek, itxaropena galduta.

Kaleak bete dituzte, Palestinaren alde

Ehunka oñatiar batu zituen, martitzenean, *Genozidioa gelditu, Palestina askatu!* lelopean Oñatin egin zuten manifestazioak. Asko izan ziren deialdiarekin bat egin duten eragileak, baita norbanakoak ere. Debagoienean bizi diren hainbat palestinar ere han izan ziren; tartean, Oñatin bizi den Mustafa Walwil.



Kale Barrian, martitzenean, Palestinaren aldeko manifestazioa. ENEKO AZURMENDI



LETURIA HARATEGIA (Bergara) · JESUS ODRIOZOLA HARATEGIA (Oñati)

URRIAK 28 - AZAROAK 11

Gure harategietan erosi eta irabazi doan baserriko arrautzak eta txistorra hilabetez!

🌐 harakinakgipuzkoa.eus

📱 @harakinakgipuzkoa

HARA KINAK
GIPUZKOA
CARNI CEROS

Cuskaber

Atxa

GIPUZKOA
MERKATARIAK
FEDERAZIOA

Dirua lortzeko du:
Eztabaita, dirua lortzeko
DIRUA LORTZEKO
DIRUA LORTZEKO



Irakurle bat GOIENA aldizkariaren 1.008. alea irakurtzen. I.A.A.

Bere komunitatearen iritzia jaso du Goienak

Goiena Komunikazio Taldeari eta haren hedabideei buruzko online inkesta 500 erabiltzailek baino gehiagok erantzun du; Goiena politikoki plurala nahiz sinesgarria dela diote, eta gertuko informazioa ematea da gehien baloratu dutena

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE
Goiena Komunikazio Taldeak bere komunitatearen iritzia – bezero, erabiltzaile, irakurle edota ikus-entzule– jaso du, beste behin. Goienarekiko eta Goienako hedabideekiko komunitateak daukan iritzia eman dute erabiltzaileek online bidezko inkesta baten bitartez. Azkenengo urteetan, urtero edo bi urte-tik behin egin du asebetetze inkesta Goienak. Modu horretara, komunitatea bera eta haren iritziak hobeto ezagutzeko.

500 lagunek baino gehiagok erantzun du inkesta. Gehienak dira 46 eta 55 urte bitartekoak (%32,5) eta 35 eta 45 urte bitartekoak (%30,4). Halaber, gehienak emakumezkoak dira; hain zuzen ere, %62,2. Ikasketa mailari dagokionez, inkesta erantzun dutenen %64k ikasketa unibertsitarioak ditu eta %30,5ek ikasketa ertainak. Iban Arantzabal Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusia pozik agertu da jasotako emaitzekin: "Goienak

etenbako neurketak egiten ditu, eta gogobetetasun inkesta hau da horietako bat. Lagin garrantzitsua da 500 erantzunekin osatutakoa. Emaitzek jarraipena adierazten dute. Aurreko urteetan ere sinesgarritasuna, gertutasuna edota pluraltasuna oso baloratuak izan ziren, eta azkenengo honetan ere bai".

Goienari buruz duten pertzepzioaren gainean, honakoak dira jasotako erantzun aipagarrienak: Goienako hedabideetan –*Goiena.eus*, Goiena telebista, GOIENA aldizkaria, *Puntua*, Goiena aplikazioa eta Arrasate Irratia– zabaltzen diren edukien balorazio orokorrean galdetuta, %63arendako ona da eta %12arendako, berriz, bikaina. Hedabide edo euskarri ezberdinei dagokienez, GOIENA aldizkaria, *Puntua* eta *Goiena.eus* dira baloratuenak eta horiei buruz jaso dira erantzun gehiago; bereziki, GOIENA aldizkariari buruz. Inkesta erantzun dutenen %23k balorazio bikaina dauka *Puntua*-ri buruz,

eta %48k ona. GOIENA aldizkaria, berriz, bikaina iruditzen zaio %21i, eta ona %63ri. Eta *Goiena.eus* webgunea, bikaina %16ri, eta ona %62ri.

Gaurkotasuna eta sinesgarritasuna

Edukiari buruz galdetzerakoan, gaurkotasuna; gaien interesa; aniztasuna; pluraltasuna; testuen egokitasuna; diseinua eta aurkezpena; argazkien eta ikus-entzulezkoen kalitatea, eta sinesgarritasuna kontzeptuez galde-tu zaie. Gaurkotasuna eta sinesgarritasuna dira gehien baloratu dituzten kontzeptuak. Ostean datoz gaien interesa, gaien aniztasuna edota testuen egokitasuna. Inkestan agertu dira

"BEZEROAK DAUDEN LEKU GUZTIETAN EGONGO DA GOIENA"

IBAN ARANTZABAL
GOIENAKO ZUZENDARI NAGUSIA

proposamenak ere esaten duenak komunikazio taldeak baduela hobetzeko tartea banaketan eta ikus-entzulezkoen kalitatean.

Sare sozialei buruz –Instagram, X, Facebook, Whatsapp, Telegram– eta Goienak sareko edukia zabaltzeko erabiltzen duen buletinari buruz galdetzean, buletina, Whatsapp eta Facebook erabiltzen dituzte gehien.

Beste hedabide batzuk

Goienaz aparte, gainerako euskal hedabide aipagarrienen gainean ere galdetu zaie, eta gustukoena dituzte Euskadi Irratia, ETB1 eta ETB2. Ostean, *Berrria* eta beste hamar bat hedabide ere baloratu dituzte. Horien guztien ginetik dago Goiena; hau da, baloratutako gainerako hedabideek baino nota hobea du; "oso ona" edo "ona".

Azken emaitza horretaz, honela mintzatu da Arantzabal: "Gainontzeko hedabideei ematen zaien balorazioen ginetik ego-tea arduraz hartzen dugun gaia da, eta horrek gure lana bezeroen zerbitzura jartzeko bultzada izaten jarraitzen du. Badugu konpromisoa kazetaritza lana hobetzen jarraitzeko; baita gure lana ikus-entzule-irakurleengana heltzeko ere. Gero eta plaza gehiagotan gaude, gero eta modu ezberdinoetan heltzen gara. Goiena aplikazioa da horietan berrikuntzetako bat; baita Primeran plataforman ere. Goiena egongo da bezeroak dauden leku guztietan, gure zeregina baita ahalik eta txoko guztietara heltzea kalitatezko toki-kazetaritza euskaraz eginez".

Gertuko informazioa

Zentzu honetan, Goiena zergatik kontsumitzen duten galdetuta, gehienek diote gertuko informazioa ematen duelako dela (%94,5). Informazioa euskaraz ematen duelako kontsumitzen ditu Goienako hedabideak %64k, eta sinesgarria delako %34,1ek.

Goiena, plurala

%66k dio Goiena politikoki plurala dela. Beste %21ek erantzun du ez dakiela, eta %13k dio Goiena ez dela plurala. Azken erantzun hori eman dutenen artean, Goiena zein alderdi edo joerarekin lerrotzeko den galdetzean, %64k uste du EH Bilduri lerrotzeko zaiola; %49k, EAJri, eta %5ek, Ahal Duguri.

Oñati da errenta handiena daukan eskualdeko herria

Oñati da batez besteko errenta handiena duen Debagoieneko herria (INE, 2021eko errenta). 18.557 euroko diru sarrerak ditu oñatiar bakoitzak. Gipuzkoako 88 udalerrien artean, errenta mailarik handiena duen 9. herria da Oñati. Errenta handieneko lurraldeko herria Arama da (20.547 euro). Haren ostean, bigarren eta hirugarren tokian daude Gaintza (19.468 euro) eta Donostia (19.150 euro). Lurraldearen batez bestekoa da 16.887 euro. Errenta altueneko Hego Euskal Herriko lurraldea da Gipuzkoa. Eta Espainian ere ez da Gipuzkoaren errentara heltzen den lurralderik.

Debagoienera etorrita, biztanleko errenta txikiena duen herria Elgeta da (16.742 euro). Oñatiren ostean, honakoa da hurrenkera: Aramaio (18.440), Antzuola (18.381), Aretxabaleta (17.859), Leintz Gatzaga (17.728), Bergara (17.454), Eskoriatza (17.196), Arrasate (17.045) eta Elgeta (16.742).

Zuberoako ikastolak laguntzeko saskiak salgai daude

Zuberoan dauden bi ikastolak laguntzeko Ikaskoli kanpaina abiatu dute eguaztenean, azaroak 1. Aurten, 20 urte beteko ditu Basabürü eta Eperra ikastolak laguntzeko ekimenak. 2003. urteaz geroztik, Zuberoan dauden bi ikastolek –Basabürü 32 hurrekin, eta Eperra 73 hurrekin– tokiko mozkinekin osaturiko saskiak salgai jarriko dituzte azaroaren 26ra arte. Aurten, Ikaskoli ekimenaren 20. urteurrena ospatzen dute, eta hiru saski ezberdin jarriko dituzte salgai: Pettarra 50 eurotan, Arbaila 57 eurotan, eta Basabürüa 68 eurotan. Abenduaren 16an banatuko dituzte saskiak Euskal Herri osoan.

Saskiak *Ikaskoli.eus* webgunean eros daitezke, eta eskuratzeko guneak webgunean bertan hautatu behar dira. "Ipar Euskal Herrian euskarak ez du babes ofizialik. Euskara hizkuntza gutxiagotua da gure lurraldean. Ikastolek dute euskararen transmisioa bermatzen", diote Zuberoako ikastolek.



Biktimak aintzateste, martitzenean Kursaalaren egin zen ekitaldiko irudi bat; Olatz Etxabe, eskumatik hasita, lehena. IREKIA

Polizia gehiegikerien biktimak aitortuta

Polizia gehiegikerien 12/2016 Legearen bidez, legezko aitortza jaso zuten beste 66 biktimak, eta horrekin batera omenaldia egin zitzaizen Donostiako Kursaal jauregian. Omendutako biktima kolektiboaren ordezkari zabalak izan zen ekitaldian

Julen Murua Mesonero DEBAGOIENA Bete egin zen Donostiako Kursaal Jauregia martitzenean egin zen ekitaldian. Bertan, 66 biktimak jaso zuten Polizia gehiegikerien 12/2016 Legearen bidez legezko aitortza, eta dagoeneko motibazio politikoko 334 biktima aitortu ditu Eusko Jaurlaritzak. Kursaalaren izan ziren ordezkarien artean, hainbat debagoiendar izan ziren. Besteak beste, Iñaki Etxabe arrasatearraren, eta Victoriano Agiriano eta Maria Angeles Barandiaran senar-emazte bergararren senitartekoak. Lehenengoa 1975eko urriaren 5ean hil zuten tiroz Kanpanzarren, bertako jatetxean. Batallon Vasco Español erakun-

de parapolizialak bere gain hartu zuen erailketa. Agiriano eta Barandiaran, berriz, polizia kontrol batean hil zituzten Gas-teizen, 1982ko urriaren 16an.

Gehiagoren beharra

Martitzeneko ekitaldian egin-dako aitortzaren gainean, Iñaki Agirianok -Victoriano Agiriano eta Maria Angeles Barandiaranen semeak- adierazi du ongi etorria dela "biktimei egiten zaien errekonozimendua", baina, era berean, zerbaiten falta sumatzen jarraitzen duela ere adierazi du: "Nire ustez, motz geratu da. Falta dena da Estatuaren aitortpena. Eusko Jaurlaritzaren aldetik egindakoa

ongi dago, baina, berriz diot, arazoa Estatuarena da, eta haiek eskatu behar dute barkamena".

Olatz Etxabe -Iñaki Etxaberen alaba- Kursaalaren izan zen, eta polizia gehiegikerien biktimak beste biktima batzuekin konparatuta zein tokitan kokatuko liritekeen galdetu zuen: "ETako biktimekin konparatuz, gu zer gara?".

Jaurlaritzaren autokritika

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburu Nerea Melgosak autokritika egin, eta onartu zuen denbora gehiegi behar izan dela giza eskubideen urraketa larri horien aurka egiteko.

'Gastronomia eta lurraldea'-ren udazkeneko saioa martxan da

Debagoieneko lurraren zaporeak du izena azaroa hasieran burutuko den bailarako egitasmoak

J.M.M. DEBAGOIENA

Debagoieneko Mankomunitateko Turismoak bultzatutako ekimena da, eta azaroaren 3aren eta 5aren bitartean izango du tokia bailarako hainbat herritan: Leintz Gatzagan, Aretxabaletan, Arrasaten eta Oñatin. Egitasmoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuaren nahiz Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren babes jaso du. Proiektuaren funtsa da Debagoieneko hainbat baserri eta gastromuseotan bisita gidatuak egitea eta bertako produktuak dastatzea.

Udazkeneko saioan kanpoaldeko eremuak eta barne instalazioak bisitatuko dira, eta, ostean, produktuen dastaketa egingo da. Eskualdean nagusi diren lau produktuen inguruan

gingo dira bisitak: gazta, gazta, txokolatea eta ogia. Hala ere, produktu gehiago dastatzeko aukera ere egongo da, adibidez, txakolina.

Bisitak gidatuak doakoak izango diren arren, beharrezkoa izango da alde aurretik izena ematea. Horretarako *infoturismo@debagoiena.eus* helbidera idatzi edo 943 79 64 63 edo 943 71 89 11 zenbakietara deitu behar da.

Programa mikologikoa

Asteburu gastronomikoa osatzeko, azaroaren 4an, Arantzazu Lab-en eskutik eta Arantzazuko lau jatetxeen nahiz Debagoiena Turismoren elkarlanarekin, Arantzazuko X. Mikopoteoa antolatuko da. Arantzazura joan-etorria egiteko autobus zerbitzua egongo da, 17:00etatik aurrera, Oñatiko postatik abiatuta.

'Eskola arrakasta' proiektua hasi du Gurutze Gorriak

Debagoieneko Gurutze Gorriko sei boluntariok garatzen dute proiektua, urrian hasi da, eta 2023-2024 ikasturtearen amaierara arte luzatuko da.

Programaren bosgarren urtea da aurtengoa, eta orain arte kalteberatasun-egoeran dauden familietako hogeitau hurrek baino gehiagok jaso dituzte errefortzu akademikoko eta garapen per-

tsionaleko saioak. Izan ere, hori bera da programaren helburu nagusia: parte hartzen duten gazteen komunikazio-gaitasunak, hizkuntza menperatzea eta pentsamendua garatzea.

Proiektua sei boluntariok osatzen badute ere, prest daude boluntario berriak sartzeko asteko saio ezberdinei erantzuteko asmoz. Programaren gaineko informazioa nahi izanez gero, 943 765 576 telefono-zenbakira deitu edo *altodeba@cruzroja.es* helbide elektronikora idatzi.



EtxeAundi

Dudu elikatzea gauza handia delako, zaituz eta sagatu konpainiazik suenean!

TORREAUZO 10 - OÑATI:
943 78 19 56



EGUNEKO MENUA EDO KARTA,
ASTEARTETIK OSTIRALERA.
ASTEBURUETAN, MENU BEREZIA EDO KARTA.



ESPEZIALITATEA:
PARRILLAN
ERRETAKO
ARRAINAK ETA
TXULETOIA.



ZABALIK

XABIER ARREGI MURGIONDO

Giltza(k)

Konponbiderako giltza manifestua aurkeztu berri du Sarek, Gernikan. Euskal preso politikoei jasaten duten eskubide urraketari amaiera emateko asmoz abiatu du Sare Herriarrak dinamika berria, "bizikidetzaren alde aurrera egiten jarraitzeko", urtarrilaren 13an Bilbon egingo den mobilizazioaren atarian. Euskal gizartearen eragile eta norbanako ugari bat egin dute manifestuarekin.

Sareren dinamika berriak, orain arteko jarraipena emanez, euskal presoan, iheslarien eta deportatuen afera behingoz konpontzea du jomuga, indarkeria guztien biktima guztientzat beharrezkoa den errespetua, babesa eta elkartasunaren beharra aldarrikatuz. Manifestuak jasotzen duen bezala, urrats esanguratsuak egin badira ere euskal presoan bakartze eta urruntze politikari dagokionez, "salbuespenak giltzarrapo izaten jarraitzen du". Espetxeetako tratamendu batzordeen eta Eusko

ETORKIZUNAREN ATEAK IREKITZEKO NAHIA ALDARRIKATZEN DUGU


ateek itxita jarraitzen dute, eta, oraindik ere, iraganaren atea behin betiko ixteko oztopo ugari ere.

Edonola ere, giltzek atea irekitzeko ere balio dute. Aspalditik eta esparru ezberdinetan eginiko mobilizazioek eta aldarrikapenek agerian utzi dute jendartearen borondatea elkarbizitzaren atea irekitzeko. Bizi izan dugun urteetako konfrontazioaren aurrean, etorkizunaren atea irekitzeko nahia aldarrikatu dugu, presoan etxerako atea zabalduko du(t)en giltza(k) eskuratuz, "elkarbizitza oinarri izango duen etorkizuna" eraikitzeko.

Giltza ugari eskuan hartuta eta orain arte elkarrekin eginiko etxerako bidea ibiliaz, Bilboko kaleak betetzeko deia luzatu zaigu Sare Herriarren eskutik, elkarbizitzaren, etorkizunaren eta etxerako atea lehenbailehen ireki daitezten.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Xanpu

NEREA LOIOLA

'BERRIA'-N ARGITARATUA
 HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/
 PAPERKOA/1892/015/002/2023-11-02/
 XANPU.HTM

Supermerkatuko korridore oso bat. Sei apal alderik alde. Goi-behe, ezker-eskuin, kolore guztietako potoak. Begi parean geratzen zaizkionetara gerturatu da, leporainoko adatsa laztandu, eta bat hartu du. [...]

Konpontzailea, indarra eta distira, hidratazio bizia, hialuronikoa, *total repair*, konpondu eta babestu, *hidrakizkurrak* edo kizkur definituak. Xanpua soilik dioenik ez du atzematen. Ile

koipetsuarentzako dago bat, sustrai koipetsuentzako beste bat eta baita ile-larru koipetsuetarako beste bat ere. [...]

Errazagoa zen larru-arras mozten zuenean, seme-alaben edozein xanpu nahikoa eta sobera zitzaionean. Urte askoren ondoren luzatzen utziko zuela erabaki zuenean, apenas mantentze-lanik behar duten orrazkera magiko horietako batekin irudikatu zuen bere burua. Magiarik ez bitzta errealean. [...]

Leun eta lisoa, edo leun eta zeta-antzekoa, edo lisoa eta zeta-antzekoa; egokiena horietako bat. Zetazko ilearen irudiak liluratuta, horixe eskaintzen duena hartzera

joan da; baina ezkerrean sulfatorik gabeko bat interesgarria egin zaio eta eskuinean ile luze kalteturako beste bat ikusi ditu. Azken hau hartuta, handik dabilen supermerkatuko langile bati galdetu dio ea hori erabilia zeta-antzekoa geratuko zaion. Baietz erantzun dio hark, baina, ziurtatzeko, leungarri bat erabili beharko lukeela; "hor atzean dituzu".

Buelta eman du. Supermerkatuko korridore oso bat. Sei apal alderik alde. Goi-behe, ezker-eskuin, kolore guztietako potoak. Eskuetan duen xanpua bere lekuan utzi eta ile-apaindegiko zembakia bilatu du mugikorrean.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
 Goiena Komunikazio Taldea
 Kooperatiba Elkarte
 Otalora Lizentziaduna 31
 20500 ARRASATE

Lehendakaria
 Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
 Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
 Eneko Azkarate.

Erredakzio batzardea
 Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
 Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
 Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
 Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
 Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
 Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
 Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
 Xabier Urzelai (Kirola),
 Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
 Imanol Soriano,
 Aitor Lagoma,
 Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
 Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
 Amaia Mundiñano.

Administrazioa
 Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
 Nerea Artola.

HARPIDETZA
 Arrasate 20500
 Otalora Lizentziaduna 31
 Tel.: 943 25 05 05
 harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
 Arrasate 20500
 Otalora Lizentziaduna 31
 Tel.: 943 25 05 05
 publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
 Arrasate 20500
 Otalora Lizentziaduna 31
 132 posta-kutxa
 Tel.: 943 25 05 05
 Telegram eta WhatsApp:
 688 69 00 07
 berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
 Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Arexabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Joseba eta Gotzon etxera!**ANA MARI MARKULETA ETA JUANJE ANDUAGA**OÑATIKO SARE
OÑATI

Euskal Herriko, Espainiako eta Frantziako espetxeetan 166 euskal preso daude: Euskal Herrian 152, Frantzian 13 eta Espainian 1.

Gaixotasun larriak dituzten presoak: 12+4 –identitatea ez da publikoa–.

Graduka –EAEn eta Nafarroan–: 2. graduan 128 eta 3. graduan 24.

Azken urteetan dispersio politika amaitzea lortu den arren, konponbiderako bidea luzea da, eta oztopo asko ditugu gainditzeko.

Gaur egun, bi euskal preso politiko oñatiar ditugu, oso egoera larrian.

Joseba Arregi: 77 urte. Horietatik 31 espetxean preso eta 28 urte luzez dispersio zein espetxe politika bortitzen pean. Martutenen dago, eta 2 aldiz kendu diote 3. gradua. Egoera larria da duen adinagatik, eta, hainbeste urtetako espetxeratzeak eragindako multipatologiengatik, kalean beharko luke. 2019an Espainiako zigorraren 3/4 beteta zuen, eta, Frantzian preso egondako 10 urteak zenbatuz gero, duela urte batzuk aske beharko zukeen.

Gotzon Telleria: 67 urte. 2017an atxilotu zuten, Mexikon, egun gutxiren faltan 30 urteko preskripzioa gauzatzeko –eta 30

urte baino gehiago erbestera joan zenetik–. Nanclares de Ocaño espetxean dago, sendaezina den gaixotasun larriarekin: alboko esklerosi amiotrofikoa (ELA).

Gaixotasuna areagotzea besterik ez dio ekarriko kartzelan jarraitzeak. Horregatik, kalean egon beharko luke.

Euskal Presoen inguruan hitz egitean, pertsonaz ari gara. Giza eskubideen kontrako baldintzetan biziraun dutenak: urrun eraman zituzten, zigor gehienak lehen graduan betearazi, isolamenduan, mediku arta duinik gabe... Eskatzen duguna ez da mesedetratua, ezta pribilegiarik ere. Salbuespenen amaiera eskatzen dugu soilik.

Beharrezkoa da egoera normalizatzeko prozesu bati ekitea, gertatutakoa ahaztu gabe baina egungo testuingurura egokituta, gauditutako faseak min handiagorik eragin ez dezan.

Horretarako, ezinbestekotzat jotzen ditugu: duela 20 urte sortutako salbuespen-legeria indargabetzea; edo, aldaketa partzialen bidez, behintzat, gaur egungo egoerara egokitzea; edo legeak egungo testuinguruarekin interpretatzea.

Etxera diogunean, esaten ari gara euskal presoek etxera itzultzeko bidea hasteko aukera izan behar dutela.

Joseba eta Gotzon etxera! Etxean eta bizirik nahi eta behar ditugu! Euskal presoak etxera!

Urtero bezala**PI TER ENCINAS**HONDAKINEN MAHAIKO KIDE OHIEN
IZENEAN
ARRASATE

10 urte dira Hondakinen Mahaiak akordioa lotu zuenetik. Urtero elkartu eta hondakinen bilketa nola gauzaten den eta zein emaitza lortzen dituen aztertzen dugu. Hondakinen inguruan lortutako akordioaren jarraipena egitea da gure helburua. Izan ere, kezkatuta gaude. Gutxika-gutxika, bilketa selektiboaren eta organikoaren kalitatearen emaitzak jaisten doaz.

Hondakinen bilketa selektiboa egiterakoan %72 jasotzen dugu modu horretan, urtetik urtera beheranzko joerarekin, eta organikoa ez den geroz eta gai gehiago dago nahastuta organikoaren edukiontzian, inpropio maila %6 izatera helduz –gero, inork ez du gura izaten horrekin egindako konposta, eta ez dugu konpost birziklatua izatea lortuko–.

Herritarrarengana zuzentzen gara, arreta galdu gabe jarraitu dezagun etxean hondakinak ez nahasten eta edukiontziguneetara behar bezala eramaten; batez ere, organikoaren kasuan, soilik organikoa dena organikoaren edukiontzira eramanez –plastikozko poltsarik gabe–.

Gaiaren garrantzia ikusirik, gure eskaera da Udalak berak edota Mankomunitateak egin beharrekoak gauza ditzala emaitzak hobetzeko.

Hizkuntza politikak gizartearen ordezkarien auzia behar du izan**GARBIÑE MENDIZABAL**

DONOSTIA

Ez da kontu berria gure hizkuntzak arazoak eduki izana Justizia Administrazioarekin. Mendeetan, justizia banatu behar zuen administrazioaren zati hori izan da injustuena gure hizkuntza komunitatearekin, prozedurengatik eta epaiengatik.

Hala, azken hilabeteotan harriduraz bizi izan dugu euskara jomugan izan duten hainbat sententzia bidegabe argitaratu izana. Sententzia horietan hizkuntza eskakizunen sistema eta administrazioaren euskarazko funtzionamendua jarri dira auzitan. Hainbat adituk adierazi dute sententzia horien atzean interpreta daitekeela, badagoela nahi bat hizkuntza politika gobernu eta legebiltzarretatik atera eta epaitegiek eurek ezartzekoa.

Iruditzen zait gizarte bezala argi dugula euskarak aurrera egingo badu, euskara hutsezko espazio fisiko eta funtzionalak beharko dituela: eskolak, herriak, fabrikak, udalak... Ez da kapritxo bat, zientziak erakutsi digu. Azpian, egoera minorizatuan dagoen hizkuntzak bizitza osasuntsua izan dezan modu bakarra da. Batzuek berdintasuna deitzen diote horri; beste batzuek, ekitatea edo justizia soziala. Kontua baita, ez bakarrik euskal hizkuntza komunitate

gutxituak nola edo hala bizirik irautea, baizik eta, komunitate gisa, osorik garatzeko aukera erreala izatea.

Aldiz, azken hilabeteotako epaien bidez, gizarte desadostasunak ebatzi behar dituen Justizia Administrazioak 35 urtez euskararen auzian izan den nolabaiteko bake-soziala hautsi egin du eta gizartearen zati handi bat indefentsio egoeran dagoela sumatzea eraman du.

Baditugu, beraz, arrazoiak larunbatean Bilboko kaleak betetzeko. Baina biharamunean, gertatzen ari denetik ikasi eta lanean jarraitu behar dugu. Iruditzen zaigu datozen urteetan unibertsitateetako zuzenbide fakultateekin batera ahalegin handiagoa egin beharko dugula hizkuntza zuzenbidean adituak sortzeko, euskararen indarberritzeak behar dituen tresna juridikoez eztabaidatu eta osatzeko eta lege-arauak euskaratik eta euskaraz pentsatzeko.

Hizkuntza komunitate gisa, aldarrikatu behar dugu eskolaren ondoren administrazioak behar duela izan hizkuntzarentzat hurrengo arnagune funtzionala; urteetan gizarteak egin duen ahalegin erraldoiak segida izan dezan.

Hizkuntza politikak bere eremu naturalera itzuli behar du; ezin da epaileen kontu izan; gizarte eragileen eta ordezkari politikoen elkarrizketatik eta lanetik eratu behar dugu gure hizkuntza komunitateak behar duen hizkuntza politika.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROIA!

GARBINE UBEDA



Aritz Murua (PSE-EE), Agurne Juldain (EAJ-PNV), Jasone Giraldo (EH Bildu) eta Eva Abuin (Elkarrekin Arrasate). E.A.B.

Intxorta omenduko dute Memoriaren Egunean

Azaroaren 10ean, Arrasateko Udalak aitortza ekitaldia egingo dio Intxorta 1937 Kultur Elkarteari, "elkarbizitzaren eta memoria historikoa berreskuratzearen alde egindako lan nekaezinagatik", Bizikidetzaren Batzordeak erabateko adostasunarekin hala onartuta

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Arrasateko udalbatzan ordezkatuta dauden lau alderdiek osatzen dute Bizikidetzaren Batzordea eta, aho batez onartuta, Intxorta 1937 Kultur Elkartearen omenduko du Arrasateko Udalak Memoriaren Egunean. Horren berri emateko prentsa agerraldia egin dute asteon Jasone Giraldo (EH Bildu), Agurne Juldainek (EAJ-PNV), Aritz Muruak (PSE-EE) eta Eva Abuinek (Elkarrekin Arrasate), udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Hala, Jokin Etxebarria kazetariak aurkeztuta, azaroaren 10ean egingo dute aitortza ekitaldi instituzionala, 18:30ean hasita, Kulturateko klaustroan, eta Udalak "aitortza garrantzitsu horrekin bat egiteko" dei egin die arrasatear guztiei.

Aurten, ekitaldi ezberdina

Jasone Giraldo egin du berba Bizikidetzaren Batzordearen izenean, eta zera adierazi du: "2023. urtea berezia izan da. Izan ere, udal

hauteskundeak direla eta, Bizikidetzaren Batzordea berri behar izan da eta, ondorioz, alderdi batzuen udal ordezkariek berriak izendatu behar izan dira. Horrek batzordearen lanketa atzeratu du, eta horregatik, aurtengo azaroaren 10a ezberdina izango da. Azken urteotan, eraillako biktimak aitortzeko baliatu izan du Arrasateko Udalak Memoriaren Eguna, baina, aurten, horrelako ekitaldi batek behar duen zaintza eta denbora bermatzea zaila ikusi dugu, eta, beraz, elkarte batek jasoko du aitortza".

Kasu honetan, Intxorta 1937 Kultur Elkartearen omenduko dute, Bizikidetzaren Batzordeko ordezkariek esanetan, "memoria his-

AZKEN URTEETAN, ERAILDAKO BIKTIMAK OMENDU IZAN DITU UDALAK; AURTEN, ALDIZ, ELKARTE BAT

torikoaren eremuan bizikidetzaren alde eta ahaztutako memoria berreskuratu eta eza gutzera ematearen alde urte luzetako lan eta ekarpena egiteagatik".

Lanean jarraitzeko konpromisoa

Era berean, azaldu dutenez, Bizikidetzaren Batzordeak bere lan-dinamikari berrekin dio ikasturte berria hastearrekin batera, "bizikidetzarekiko eta memoria historikoarekiko konpromisoan aurrera egin jarraitzeko". Datozen urteetara begira, giza eskubideen urraketen biktimei aitorpena egin jarraitzeko borondatea agertu dute batzordekideek.

Azkenik, Udalak memoriarekin eta bizikidetzarekin duen konpromisoa berretsi duela nabarmendu dute, eta Intxorta 1937 Kultur Elkarteari egindako aitortza hori "urrats garrantzitsua" dela "etorkizuneko belaunaldientzat memoria sendo eta partekatua eraikitzeko".

Lau bilera geratzen dira Greba Feminista Orokorra lantzeko

Bi lantaldetan banatuta ari dira lanketa egiten. Azaroaren 30era arte, astero egingo dituzte asanblada irekiak, eta Arrasateko Denon Bizitzak Erdigunean taldeak bertan parte hartzeko deia zabaldu die herritar guztiei, "denon laguntza ezinbestekoa delako". Azaroaren 8an, 15ean, 22an eta 29an dira saioak, 18:30ean, Etxaluze eraikinean.

'Konponbiderako giltzak' hitzaldia etzidamu Kulturaten

Arrasateko Sarek antolatuta, euskal presoaren egungo egoeraren inguruan arituko dira Haizea Ziluaga abokatu eta Joseba Azkarraga Sareko bozeramailea datorren azaroaren 6an, astelehena, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan hasita. "Izan zaitez konponbiderako giltza, salbuespen neurriak gelditu!", adierazi dute Saretik.

Intersport Loramendi izan da erakusleho bozkatuena

Ibai-arte antolatuta, Gaba Balzateko erakusleho lehiaketa egin dute aurten, bigarren, eta Intersport Loramendik irabazi du lehen saria, 300 eurokoa (223 boto jaso ditu). Bigarren saria, 200 eurokoa, Altuna lurrindegia irabazi du (122 boto). Bozkatu dutenen artean 100 euroko bi bonu zozkatu dituzte, eta zenbaki irabazleak 512 eta 297 dira.

'El caso Freyter' dokumentala eta solasaldia, Amaian

Jorge Adolfo Freyter Romero Elkarteak antolatuta, dokumentala proiektatuko dute azaroaren 10ean, 18:30ean, Amaia antzokian, eta solasaldi bat ere egingo dute ostean, gaia aztertzeko, Julian Martinez kazetariak eta Maria Alejandra Rojasek (Kolonbiako Prozesu Sozial, Herriko eta Komunitarioen Koordinatzaile Nazionalaren ordezkaria).



errigora.eus

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

10 urte bete-bete

urriak 20 - azaroak 9



Eskatu saskia!



Kontzientziatzen jarraitu gura dute, bibotea utzita

Prostatako minbiziaz kontzientziatzeko hilabetea izan ohi da azaroa eta aurten ere hala izango da, Mondravember taldearen eskutik, askotariko ekintzak egongo baitira hilabete osoan; hilaren 11n, esaterako, eskualdeko topaketa egingo dute Elorregin

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Bihar, zapatua, hasiko dute egitaraua, 16:30ean, Mojategin. Izan ere, Arrasate Rugby Taldearen eta Atletico San Sebastianen arteko errugbi partiduan, talde argazki bat aterako dute Mondravemberreko kideek, jokalariekin batera, eta kamisetak eta otarrearen zozketako txartelak salduko dituzte harmailetan.

Azaroaren 11 izango da egunik beteena. Lehenik, Debagoieneko Movember mugimenduen topaketa egingo dute Elorregin: Oñatikoak, Bergarakoak eta Arrasatekoak. "Aurten, erabaki dugu oinez joatea, mendi ibilaldi bat eginez, Kurtzetxikitik buelta", azaldu du Iban Arroiabek, Mondravemberreko kideak. Egun berean, Hoba jatetxean, bazkari solidarioa egingo dute (30 pertsona gehienez). Arratsaldean, Mondraren eta Urkiren arteko futbol partidua baliatuko dute errugbikoekin egindakoa errepikatzeke, eta, 20:00etan, azkenik, bertso desafioa egingo dute Urribarriko Urrin tabernan. "Iaz egin genuen eta arrakasta handia izan zuen. Beraz, errepikatzea erabaki dugu", dio Arroiabek. Modu horretan, Asier Iriondo eta Zigor Enbeita ariko dira Manex Agirre eta Xabi Igoaren aurka.



Iban Arroia, King's ile-apaindegian, bizarra atontzen. JOKIN BEREZIARTUA

Elkarlana ere, funtsezkoa

Mondravemberren, Ibai-arteren eta Garaguneraren arteko elkarlanari esker, Arrasateko Garaguneko erabiltzaileek sortutako 95 poltsa eta 25 nezeser zozketatuko dituzte, biboteak ikusarazteko. Zozketan parte hartzeke, Arrasateko edozein establezimendutako tiketaren argazkia bidali beharko da, azaroaren 13a baino lehen, 688 73 41 49 zenbakira. Sari banaketa azaroaren 18an egingo dute, bertako produktuen azokan, Seber Altube plazan.

Hilaren 25ean, egun handia

Azaroaren 18an, mus txapelketa egingo dute, eta hilaren 25a izango da Mondravember Eguna. Goizean mendi irteera bat egin ostean, talde argazki bat aterako dute, eta Mondravemberreko kideek bazkaria egingo dute Udalpe elkartean. Azaroaren 26an, azkenik, Galarrako kobara bisita gidatua egingo dute, Arantza Otaduiaren eskutik. Halaber, azaroko egubakoitz guztietan Seber Altube plazan egingo dira, 19:00etatik 21:00etara, kamisetak eta txartelak saltzen.



NIRE USTEZ

IBON ARRUPE

Gogoa eta kemena

Udalak datozen lau urteetarako erronkak zehazten dabiltzalarik, Arrasaten, askatu beharreko korapiloak identifikatzea erraza da: Amaia antzokia behin betiko ireki ahal izateko lanak burutzea; umezaintzaren ondoko udal partzela amiantoz deskutsatzea; Garaia Parke Teknologikoko bidegorri zati berria Iturriperaino heltzen denarekin lotzea; Arimazubiko Hizkuntza Eskolan irisgarritasun baldintzak bete ahal izateko obrak egitea; Udala auzoko auto pilaketen ondorioz auzotarrak beraien baserrietatik sartu eta irten ezinik gera ez daitezen, ingurua urbanizatzea; Jose Luis Iñarra eta Altamirazpiko irisgarritasuna bermatzeko proiektua garatzea; Santa Teresako biziberritze programa abian jartzea eta, zer esanik ez, Olarte, Zerkaosteta, Arimazubi eta Juan Karlos Gerra plazetan, bizilagunen eta tabernariaren arteko bizikidetzaren bermatzeko neurriak adostea. Arrasateko udalean, erronka horiei eta gehiagori aurre egiteko dirua badago. Beraz, espero dut Udal Gobernuaren aldetik gogoa eta kemena ere hein berdinean egotea.

Euskal arteaz ariko da Edorta Kortadi azaroaren 9an

Euskal margolari, eskultore eta arkitektoen lanaz eta lan horien testuinguruaz ariko da Edorta Kortadi Kultureteko areto nagusian, azaroaren 9an, 18:00etan. Deustuko Unibertsitateko Artearen Historiako irakaslea da Kortadi, baita arte kritikaria ere Euskal Herriko hainbat hedabidetan. Halaber, Donostiako Santa Maria basilikako parrokoa da eta Donostiako Elizbarrutiko museoko zuzendaria. Zortzi liburu idatzi ditu, bereziki euskal arteari buruz, tartean, *Arantzazu, tradizioa eta abanguardia*. Aldundia, Arrasateko Udala, Isea kooperatiba eta Mondragon Taldea dira hitzaldiaren antolatzaileak.

Azaroaren 26ko gala lirikorako sarrerak salgai daude jada

Una noche en el teatro de la comedia ikuskizuna egingo dute azaroaren 26an Amaia antzokian, 19:00etan, Arrasateko Ozenki elkartearen eskutik, eta dagoeneko eskuragarri daude sarrerak, 20 eurotan, Arrasate.eus atarian. Era berean, ozenkielkarte@hotmail.es helbidera idatzita ere eskuratu ahal izango dira.

Mozart, Puccini edo Solozabal konpositore ezagunen ariak baturatu dituzte emanaldiak, umore ukitu handiarekin. Josean Garcia zuzendari artistiko ezaguna du buru ekoizpenak. Musika zuzendaria, aldiz, Arkaitz Mendoz da, eta Valen Moñux bergararra, eszenografia eta atrezzoaren arduraduna.



**VITALDENT
ARRASATE**
Otalora lizentziaduna kalea 1
943 06 03 22

(1) 200 €-ko deskontua TRATAMENDU HONETAN: INPLANTEA + KOROA. Eskaintza 2023ko urriaren 9tik azaroaren 30era bitartean (biak barne) kontratatuko diren tratamenduei aplikatuko zaie. Ez da metagarria beste deskontu eta sustapenekin. RS: CS10715 (2) Finantzaketa adibidea 3.000,00 €-ko zenbatekoa 36 hilabetetarako. Lehenengo kuota: 233,33 €, 83,33 €-ko 34 kuota eta azken kuota: 83,45 €. Formalizazio komisioa % 5 (150,00 € lehen kuotan ordaintzeko), ITN % 0,00, UTB % 3,40. Guztizko interesak: 0,00 €. Kredituaren kostu osoa: 150,00 €. Zordundutako guztizko zenbatekoa eta epokako guztizko prezioa: 3.150,00 €. Eskurako erosketa-prezioa: 3.000,00 €. Amortizazio-sistema frantsesa. Banco Cetelem S.A.U. banketeak eskaintutako finantzaketa. Sustapenaren irauzaldia: 2023/12/31ra arte. RPS 43/21

200€-KO
DESKONTUA
INPLANTEA
+ KOROA⁽¹⁾

**3 URTETAKO
FINANTZAKETA**
INTERESIK GABE

ITN % 0,00 UTB % 3,40⁽²⁾

AEDk patxadaz hartzeko emanaldiak dakartza

Azarorako hiru kultur proposamen antolatu ditu AED euskara elkarteak. Horietako bi egunotan garatuko dira: gaur bertan, literatura emanaldi musikatua, eta, hilaren 8an, *Loreak belaunetan: kulturaren zazpi ahots gazte* dokumentalaren proiektzioa

Hasier Larrea ARRASATE

40. urteurreneko ekitaldiei segida emango die hil honetan Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak. Gaur, ostirala, 19:30ean, literatura emanaldi musikatua egingo dute Juan Arzamendi Musika Etxean; Joseba Sarrionandia eta Joxe Mari Iturralde idazleek, Anne Etchegoyen abeslariak, Iñar Sastre musikariak eta Olatz Prat kazetari eta musikariak hartuko dute parte ikuskizunean.

Gazteak eta kultura

Datorren eguaztenean, hilak 8, Kulturateko areto nagusian eskainiko dute Lanartea elkarteak ekoiztutako *Loreak belaunetan: kulturaren zazpi ahots gazte* dokumentala, 19:00etan hasita. Zazpi ahots horietako bat Oihana Arana bertsolari eta poeta eskoriatzarrarena da. Hark eta beste sei sortzaileek euskal kultur munduaren nolakotasunari buruz hausnartzen dute kamera

aurrean, etorkizunera begira jarrita. Aranak, besteak beste, *militantzia* kontzeptua jorratzen du: "Sorkuntza militantzia gisa ulertzen duzu, baina hortik bizi nahi duzu era berean, beraz, hor badago horma bat gainditu beharrekoa, eta nire ustez egin daitezke biak", aipatzen du Lanartea sareratu duen piluleta batean.

Halako gogoeta mamitsuak pantailan bakarrik ez, proiektzioaren osteko solasaldian ere landuko dituzte, Lanartea elkarte Amagoia Gurrutxaga eta Oihana Arana bera gonbidatuta. Eneko Barberena idazlea arduratuko da saioa gidatzeaz.

Hilabetea ixteko

Azaroaren 23an, bestalde, *Hitzen ahaira. Zeri kantatzen diogu euskaldunok?* hitzaldi musikatuaren txanda izango da, Kulturoloko Udal Euskaltegian, 19:00etan, Gotzon Barandiaranen eta Rafa Ruedaren eskutik.

'Loti ederra' antzerki-obra eguneratua zapatuan Amaian

Glu-glu konpainiak *Loti ederra* ipuin klasikoaren taula gaineko egokitzea egin du, 3 urtetik gorako publikoarentzat. Galder Perez egileak eta Ugaitz Alegria zuzendariak obra originalaren eduki sexistak eta tradizionalistenak ezabatu dituzte, gai nagusia haur zein nerabeek sare sozialekiko duten menpekotasunean edota esklabotzan oinarrituta: "Inposatu zaizkigun edertasun-estereotipoekin haustea dugu xede, jakinda hautaketa hau kontraesankorra gerta daitekeela", azaldu dute konpainiako kideek.

Bertsio berri hori bihar, zapatua, aurkeztuko dute Amaian antzokian, 17:00etan hasita.

Loixerekin zeramika ikastaroak martitzen eta eguenetan


Loixe taldeak hastapen eta trebatze mailako zeramika ikastaroak antolatu ditu azaroaren 7tik abenduaren 14ra bitartean. Kulturoloko egoitzan izango dira, hiru taldetan banatuta, martitzen eta eguenetan: Hastapen mailako A taldea 10:00etatik 12:00etara batuko da; Hastapen eta Trebatze mailako B taldea, 16:00etatik 18:00etara, eta Hastapen eta Trebatze mailako C taldea, 19:00etatik 21:00etara.

Loixeko kideek azaldu dutenez, "teknika eta akabera desberdinak landuta, partaide bakoitzak hainbat pieza sortuko ditu, bere proiektu propioari jarraituta".

Izena emateko, deitu 685 79 61 27 telefono zenbakira.



Oihana Arana eskoriatzarra. LANARTEA



Eneko Barberena arrasatearra. GOIENA

BLACK NOVEMBER

Azaroaren 3tik 8ra

-%25*

urdaiazpiko eta beso pieza guztietan (sortak barne)

Aurreztu gehiago, bazkide izateagatik

* Kubatik pasatzean, eskuratuak produktuaren deskontuaren balioa duen zenbakiak zure EROSKI Club kartarekin sartuko ditugu, berehala. Zenbaki hori hurrengo erosketetan trukatu ahal izango duzu. Deskontu hau ez da balioduna izango "adren aleak" izenez seinalatutako produktuetan. Kontsulta itzazu gainerako baldintzak eta eskuragarritasuna zure ohiko dendan.

EROSKI
ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE.
Tel.: 943 71 10 30



Araban egindako ekitaldi bateko unea. AFRIKA MINIATURAN

Afrika hurbilago sentitzeko ekimena

Gasteizko Afrika Miniaturan elkarteak antolatuta, hiru ekimen egingo dituzte azaroaren 6an, 7an eta 9an. Elkarteko kideak izango dira Aramaion; Afrikan zelan bizi diren, emakumeen eta haurren egoera, eta migratzaileen egunerakoa azalduko dute

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Afrika hobeto ezagutzeko aukera egongo da datorren astean Aramaion egingo diren ekitaldien bitartez. Afrika Miniaturan kultur elkarteak antolatuta, hiru egunetan ekitaldiak egingo dituzte.

Azaroaren 6an, astelehena, hitzaldia eta elkarrizketa saioa egingo dute kultura etxean, 17:30ean. "Emakumearen papeira Afrikan zein den azalduko du elkarteko kide batek; eta Ugandan haurrak zelan bizi diren ere azalduko du", dio Afrika Miniaturan elkarteko Christian Mongok. Ghanan egin duten proiektu baten berri emango dute: emakumeak autonomoago izateko sortu duten proiektua zertan datzan azalduko dute, eta horrek eragin duen gizarte transformazioa.

Haurrendako jolasak

Azaroaren 7an, martitzena, gaztetxoenei zuzendutako saioa egingo dute ludotekan. Afrikar

jatorria duten baina Araban bizi diren bi haurrek dinamizatuko dute ekimena, euskaraz: "Afrikako jokoak azalduko dituzte, eta, halaber, erakutsiko dute Afrikako haurrek zerekin egiten duten jolas. Izan ere, han ez dituzte jostailuak, eta naturako elementuekin sortzen dituzte jostailuak". Modu horretan, gainera, munduko beste txoko batzuetako haurrek ondo zelan pasatzen duten ikusiko dute Aramaioako neska-mutikoei.

Migratzaileen egunerokoa

Azaroaren 9an, 17:30ean, kultura etxean, *Etorkinen testigantza Arabako integrazioari buruz* berbaldia egingo dute. "Arabian bizi diren migratzaileen egune-

ORAIN DELA 5 URTE SORTU ZUTEN ELKARTEA, AFRIKARI BURUZKO EZAGUTZA ZABALTZEKO

rokoa ezagutzeko aukera izango dute kultura etxera etorriko direnek", dio.

Hain zuzen ere, hori da jardunaldion helburua. Afrikako kontinenteari buruzko ezagutza, sentsibilizazioa eta sustapena egitea Euskal Herrian, eta bi herrialdeak batzen dituzten lotura unibertsalak ehuntzea.

Afrikarekiko maitasuna

Afrika Miniaturan elkartea orain dela 5 urte sortu zuten. Elkartean parte hartzen dute migratzaileek eta baita Afrikarekiko maitasuna duten hainbat pertsonak ere. Ekimen kulturalak egiten dituzte, baita gizarte eta kirol arloko ekimenetan ere sartuta daude. Hitzaldiak, ikus-entzunezkoen hedapena, eta Afrikako kulturako arte erakusketak ere egiten dituzte.

Gasteizen kokatuta dago elkartea, eta egunerokoan 15 lagun dabilta lanean; beste zortzi lagun laguntzen aritzen dira.

Urtarrilean hasiko den bertsolari txapelketan, zazpi aramaioar

2024ko urtarrilean hasiko dute Arabako Bertsolari Txapelketa; 18 bertsolarik parte hartuko dute

A.E.G. ARAMAIO

Dagoeneko zehaztu dute 2024an jokatuko den Arabako Bertsolari Txapelketan zein 18 bertsolarik kantatuko duten. 2022ko bost finalistak egongo dira txapelketan, eta horien ondoan izango dira azken asteetan jokatutako kanporaketetan txartelak lortu dituztenak. Bada, sailkatuen artean, zazpi aramaioar daude: 2022ko txapelketako irabazlea, Peru Abarrategi; harekin batera finalista izan ziren Manex Agirre, Xabi Igoa eta Paula Amilburu. Eta, bes-

talde, aurtengo kanporaketetan parte hartu duten Aitor Ugarte, 185 punturekin sailkatua; Martin Abarrategi, 182.5 puntu lortuta; eta, azkenik, 171 punturekin, Danel Herrarte.

Aramaioarrekin batera izango dira Iñaki Viñaspre; aurtengo saioetako irabazleak: Unai Anda, Maddi Agirre, Ekaitz Samaniego eta Asier Otamendi; eta kanporaketetan parte hartu duten Aroa Arrizubieta, Orlando Arreitunandia, Eli Zaldua, Felipe Zelaieta, Rikardo Gonzalez eta Izar Mendiguren.

Micaela Portillari buruz egindako lana botako dute bihar

Untzillan maistra izandako Micaela Portillari buruz egin duten ikus-entzunezkoa botako dute bihar, zapatua, Untzillako elizan, 17:00etan: *Micaela Portilla, templos, torres y caminos*.

Micaela Portillaren jaiotzaren mendeurrena bete zen 2022an; data borobila ospatzeko, Arabako Foru Aldundiak Portillaren dokumentala egin zuen, eta, tartean, Untzillan ere grabatu zituzten dokumentalerako irudiak. Dokumentalarekin pertsona eta haren lana ezagutarazi nahi dute, eta ondare pertsonalaren garrantzia nabarmendu. Portillaren bitartez, Arabako artea eta historia ezagutarazi nahi dute.

Azkoagako elizan bi ikuskizun egingo dituzte domekan

AntzokOH! ekimenak geldialdia egingo du aurten ere Azkoagan. 2021ean sortu zuen ekimena Arabako Aldundiak, kultur eskaintza landaguneetara zabaltzeko asmoz. Besteak beste, 500 biztanle baino gutxiagoko auzunea izatea eta kultur azpiegiturarik ez izatea dira ekimenean parte hartzeko baldintzak.

Domekan, Azkoagako elizan izango dira aurtengo ekimeneko ekitaldiak, 12:00etan. Bi emanaldi egingo dituzte: Altraste dantza taldeak *¿Qué tienen las flores?* lana eskainiko du; eta Pez Limbo taldeak *Daisy Crazy*. Emanaldiaren ondoren, aktoreek publikoarekin solasaldia izaten dute, lanbidea ezagutarazteko.

OHARRAK

Hiru txirilo txapelketa

Euskal Herriko 33. hiru txirilo txapelketako laugarren saioa Untzillan jokatuko dute bihar, zapatua. 17:00etan hasiko dute lehia, eta parte hartzeko 5 euro ordaindu beharko da.

Haziaraba in the Mapping, domekan

Haziaraba in the Mapping jaialdiak geldialdia egingo du azaroan zehar Aramaion. Hiru ekitaldietatik lehena domekan izango da, 17:00etan: *Nomadak* ikuskizuna.

San Martin pilota txapelketa: finalerdiak

Gaur, barikua, 18:15ean hasita hiru partidu jokatuko dituzte; eta, domekan, 10:00etan hasiko dira. Finalerdiak izango dira.

Mentoretza programari ekin dio Gu Haziak Gara-k

Gipuzkoako SOS Arrazakeriak Urretxindorra egitasmoa jarri du abian Debagoiengan, Aretxabaletako laguntza-elkartearen babesarekin; 10 eta 14 urte arteko migratuak goi mailako ikasketak dituzten gazteekin elkartzea da helburua

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Urretxindorra izeneko mentoretza proiektua aurkeztu zuen Gu Haziak Gara laguntza elkar-teak herriko hainbat eragileren aurrean, urriaren 19an. Aretxabaleta Lanbide Eskolan elkartu ziren Gipuzkoako SOS Arrazakeriak beste hainbat eskualdetan dagoeneko abian duen egitasmoaren berri emateko, eta horren lekukotza irudikatuzko mural bat margotu zuten elkarlanean. "Orain, Aretxabaletako herrian zehar hegan ikus daiteke Urretxindorraren mural pieza hori", adierazi dute Gu Haziak Gara elkarteko lagunek. Ekitaldia bukatzeko, Kolonbiako, Marokoko, Pakistango, Euskal Herriko eta beste hainbat jatorritako jakiak dastatu zituzten, musikarekin girotuta.

Denbora eskaini

Egoera zaugarrian dauden eta 10 eta 14 urte artean dituzten migratuei bideratutako egitasmoa da Urretxindorra. "Mentoratu bakoitzak mentore bat izango du eskolako lanekin eta bizitzako beharretan lagunduko diona. Mentoreek euren denbora eskainiko dute astean behin edo gehiagotan elkartuta gaztetxoekin", azaldu dute Gu Haziak Garako kideek. Mentore izateko baldintzak dira 18 eta 30 urte bitartean izatea eta unibertitate edo lanbide heziketako ikaslea. "Baita gogoa eta ilusioa izatea ere, ikasturtean zehar astero arratsalde bat eskaini beharko dutelako".

Bederatzi urteko bermea

Gipuzkoako SOS Arrazakeria elkar-teak orain dela bederatzi urte jarri zuen abian proiektua Donostialdean, eta haiek diote erreminta horrek frogatutako emaitzak eskuartearen izanik-gizarte kohesioan, inklusioan eta ongizate psikosozialean duela onura. Orain, Debagoie-



Elkarteko eta Lanbide Eskolako hainbat ordezkari, muralaren aurrean. GU HAZIAK GARA

nera iritsi da mentoretza sozia-leko egitasmoa: "2022-2023 ikasturte bukaeran programa pilotu bat jarri genuen martxan, eta haren arrakasta ikusita, helburua da aurten ikasturte osoan garatzea".

Urretxindorra egitasmoaren baitan mentore izan gura dutenendako ateak zabalik dituzte. Izena emateko edo argibide gehiago eskatzeko elkartera idatz daiteke; hona hemen helbidea: guhaziakgara@gmail.com.

"Pozik geratu gara programa pilotuarekin"

JOANA MANZISIDOR
DEBAGOIENEN ARDURADUNA

Gu Haziak Gara elkarteko kide arrasatearrak Urretxindorra egitasmoaren ardura du Debagoiengan.

Gogotsu ikasturtea hasteko?

Bai, bai. Programa pilotuarekin oso pozik geratu ginen eta animatuta gaude, nahiz eta jakin urte osoko konpromisoa eskatzea ez dela erraza izango. **Zenbat izan ziren?** Bost bikote osatu genituen; mentoreak izan ziren Lanbide



GU HAZIAK GARA

Eskolakoak, eta gaztetxoak, Arrasate Herri Eskolakoak bi, eta Kurtzebarrikoak, hiru.

Jarraitu egingo dute horiek?

Bikote bakarrak, gainerakoek ezin dutelako, baina Mondragon Unibertsitateko ikasle batzuk sartuko dira. Une honetan, umeen gurasoekin bilerak egiten gabiltza, ekimenaren berri emateko, eta mentore bila. Iazko kopurura iritsi gurako genuke.



NIRE USTEZ

OIER ZUMARRAGA

Adimen artifiziala: laguna edo etsaia?

Egun bizi garen aro digitalean, adimen artifiziala (AA) ezinbesteko tresna eta kezkatzeko arrazoi bihurtu da aldi berean. Hala ere, aurrerapenaren bidean, tresna baliagarria da edo mehatxu bilakatu da?

Kezkaren itzala gizartearen gainean dago. Inteligentzia artifizialak metatu lezakeen botereak kezka eragin du. Halaber, arauketa eta etika faltak arrisku nabarmenak dakartza, pribatutasuna inbaditzetik hasi eta erabaki diskriminatzaileak hartzeraino.

Erljio berri baten antzerakoa izan liteke. Ideia berbera da. Ez dakitenari buruz erantzuten du. Horrek esklabotza berriak sortuko ditu, eta okerrera: askatasun itxurarekin mozorrotuta.

Nahaspila honi erantzun bat aurkitu nahian, ardura edo aukeraketa gurea dela esango nuke. Lagun edo etsai; adimen artifizialak gure erabakiak eta ekintzak islatuko ditu. Hala ere, nahitaezkoa iruditzen zait araudi etikoak ezartzea, algoritmoetan gardentasuna bermatzea, eta teknologiaren eta gizateriaren arteko lankidetzaren sustatzea.

Perez, txapeldun

Sestaon jokotutako Euskadiko Karate Txapelketan Joanna Perez izan zen txapelduna –kumite, 61 kiloz azpikoetan–. Ariane Bartolome, ostera, hirugarrena izan zen –kumite, 61 kiloz goitikoetan– eta Lander Cebrino bigarrena –kumite, 76 kiloz azpikoetan–. Bestalde, Odei Vazquezek ez zuen lortu finalera sailkatzea sorbaldako lesio baten ondorioz.



UDA

'Barbie' filmarekin itzuliko da zinema Arkupera, asteburuan

Barbie (Estatu Batuak, 2023) film entzutetsuarekin ekingo diote zinema denboraldiari Arkupen. Gaur, egubakoitza (22:00), bihar eta domekan (19:30) eta astelehenen (16:00) emango dute, eta sarrerak online har daitezke Aretxabaleta.eus webgunearen bidez. Umeek, ostera, *Elemental* (Estatu Batuak, 2023) marrazki bizidunen filma izango dute bihar eta etzi (17:00).

Erakusketen aretoan, ostera, Juan Mari Urrutia Errasti *Patxi* (1947-2023) arrasatearraren marrazkiak izango dira ikusgai astelehenetik aurrera. Bere bizitzako azken urteetan boligrafoz eta errotulagailuz egindako irudiak erakutsiko dituzte.

Sare-ren asanblada, azken berritasunak aurkezteko

Aretxabaletako Sarek batzarra deitu du azaroaren 10erako, egubakoitza, udaletxe zaharrean (18:30). Hiru gai nagusi izango dituzte hizpide: presoen etxeratzaren fase berria, Gabonetarako proposamena eta *Giltzak* manifestua.

Azken hori Gernikan aurkeztu zuten urriaren 21ean, eta eragile sozial, politiko, sindikal eta norbanako ezagunek babes-tu zuten orduan. "Konponbidearen eta elkarbizitzaren atek parez pare zabaltzeko giltza" izatea da manifestu horrekin gura dena, eta herritarrak horretara gonbidatuko dituzte datozen asteetan, atxikimendua emateko eskatuz.

Ordenantza fiskalak: %2,6ko igoera orokorra

Eskoriatzan, urriko ohiko osoko bilkura egin zuten hileko azken egunean, eta bertan, besteak beste, 2024ko ordenantza fiskalak orokorrean %2,6 igotzea onartu zuen EH Bilduren Udal Gobernuak (6 boto), oposizioan dagoen EAJren kontrako botoekin (3)

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Udal Gobernuako kideek aurkeztutako proposamenak baiezko sei boto izan zituen, eta, alderdi jeltzaleak, berriz, kontrako hiru boto eman zituen. Igoera orokorraz gain, herritarrek egindako ekarpenak ere txertatu dituzte ordenantza fiskaletan.

Igotzearen arrazoia: 3 lizitazio Dorleta Sologaistoa Eskoriatzako EH Bilduko bozeramaileak ordenantza fiskalak igotzea arrazoitu zuen: "Gure proposamena sakon aztertu dugu; herritarrei eragiten die, eta oso kontuan hartu dugu hori. Hiru lizitazio berri izan ditugu: etxez etxeko lizitazio berria, batetik; igoera oso handia izan du; izan ere, bost urtez izan dituzte soldatak izoztuta. Bestetik, lorezaintza

zerbitzua dugu, eta kale garbiketari ere aurre egin behar diogu. Osoko bilkuran aipatu da Foru Funtsa jasoko dugula, eta ondo etorriko da, baina ez da diru nahikoa izango hiru horien igoerak aplikatzeko. Gainera, igoera hauek zuzenean langile-riaren soldatetara joaten dira, eta uste dugu soldata duinak behar ditugula. Inori ez zaio gustatzen igoerak aplikatzea, baina zerbitzu duinak izateko egin beharreko zerbaite da".

Herritarrek egindako bi ekarpen ere izan dira. "Batetik, kiroldegiko kantxaren erabilerari dagokiona. Orduka alokatzen dutenen artean, %80 kiroldegiko bazkide badira ordainduko dute; bazkide ez direnek, berriz, ez dute sarrera ordaindu beharrik izango. Bestetik, hiri-lurren ba-

lio igoeraren gaineko zergaren ordenantza fiskal arautzailea. Eskualdatze bat dagoenean aplikatzen den zerga da; lehen karga igotzen joaten zen, eta %15ean gelditu. Orain, 20 urtetik aurrera %8an mantenduko da karga hori. Horrela, kolpe txikiagoa da urte batzuetatik aurrera".

Oposizioak, kontrako botoa Josu Ezkurdia EAJko bozeramaileak honela azaldu zuen ezezkoa ematearen arrazoia: "Uste dugu ez dela une egokia tasak eta zergak igotzeko. Udal Gobernuaren ardura genuenean pandemia izan genuen, Ukrainako gerra..., eta tasak oso gutxi igotzea edo izoztea planteatu genuen, eta horregatik berdina egiteko adierazi diogu Bilduren Udal Gobernuari".



Urriko osoko bilkuran batutakoak, osoko bilkuren aretoan. IMANOL BELOKI

Hilaren 30eko greba berbagai

Zaintzaren gaia guztion ardura da lelopean, asanblada mistoa izan zen joan den astean, kultura etxean, herriko talde feministek deituta. Balorazio ona egin dute: "Pentsiodunak, gazteak, gizonezkoak eta mugimendu feministako kideak elkartu ginen; hilaren 30eko grebaren zergatiak azaldu, eta antolatze lan taldeak egin genituen, besteak beste".



ESKORIATZAN FEMINISMOA BIZIRIK



Gaztetxoak mozorrotuta, talde argazkian. LEINTZ GATZAGAKO GUREL GURASO ELKARTEA

Aurpegiak margotu eta eskean atera dira, beldurra ematera

Leintz Gatzagako Guraso Elkartekoek antolatuta, Gaba Baltza joan den egunbakoitzean ospatu zuten

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Leintz Gatzagako Gurel Guraso Elkarteko kideek antolatuta, zenbait haur batu ziren joan den egunbakoitzean, gurasoek lagunduta, Gaba Baltza ospatzeko. 19:00etan egin zuten hitzordua, eta lehenbizi aurpegiak margotu zituzten era beldurgarrian, eta, gero, mozorroak jantzita, eskean aritu ziren herrian zehar. Amaitzeko, afari-merienda egin zuten batutakoak.

"Ahalik eta haur gehien batzea zen gure asmoa, eta horregatik ospatu genuen Gaba Baltza joan den egunbakoitzean. Izan ere, martitzenean, zenbait haurrek huts egingo zutela adierazi zигuten, eta denok ez ginenez egongo, hala egitea erabaki genuen. Aurpegiak margotu eta kalean beldurra ematen aritu ziren gaztetxoak. Ederto pasa zuten. Gero, egunean batutako haurrei talde argazkia atera

genien Gatzagako iturrian, eta, amaitzeko, afari-merienda egin genuen", adierazi du Ainhoa Barandiaranek, Leintz Gatzagako Gurel Guraso Elkarteko kideak.

Egutegiko erretratuatarako deia Azaroaren 11n, gatzagarrak batu nahi ditu Udalak 2024ko egutegiko erretratuak ateratzeko. Urtero etxez etxe banatzen dute egutegia, eta, aurten, ahalik eta herritar gehien batuta, talde argazkia ateratzea da asmoa, lehenengo argazkirako. Bestetik, herriko lau gazteenak eta lau nagusienak batzea eta horiei ere erretratu ateratzea da asmoa, hala, bigarren argazkia ateratzeko. Bi horiekin osatuko dute 2024ko Gatzagako egutegia. Deialdia azaroaren 11rako egin dute; 17:00etan, plazan. Ondoren, 19:00etan, pintxo-potea egingo dute.

Azaroaren 12an ospatuko dituzte sanmilixanak

Azaroaren 12an, domeka, San Milixan jaiak ospatuko dituzte Leintz Gatzagan. Ohiko artisau azoka egingo da bertan; artisautza lanez gain, askotariko produktuen postuak jarriko dituzte, hau da, jatekoa ez da faltako. Gainera, Sorginak Emakume Elkarteko kideek ere ez dute hutsik egingo, eta taloak prestatzen arituko dira.

Gatz Bidea Takarraran taldekoek ere egin dute hitzordua egunerako. Arrasate eta Gatzaga arteko ibilbidea egingo dute, azken urteotan moduan, 10:30ean, Arotz plazatik irtenda. 12:00ak bueltan, berriz, Gorosarri landetxean ura eta fruta izango dira parte-hartzaileentzat, eta 13:00ak aldera iritsiko dira Gatzagara. "Arrasate-Gatzaga irteeraren beste edizio bat martxan dago. Helburua giro onean kirola egitea da. Etorri gurekin!", adierazi dute antolatzaileek.

Euskararekin ez dute atzerapausorik onartuko

EAEko Auzitegi Nagusiak "euskararen biziberritzearen aurka" emandako azken epaiak salatzeke Eudelen eta UEMaren adierazpenak onartu ditu udalbatzak, EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin eta alderdi sozialistaren kontrako botoekin

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA EAEko Auzitegi Nagusiak azken asteetan euskararen aurka emandako epaiak salatzeke bi adierazpen onartu zituen astelehenan Bergarako udalbatzak. Eudelen eta UEMaren adierazpen horietan salatzen da, besteak beste, Eusko Legebiltzarrak adostasun zabalarekin onartu zuela epaitegiek balio gabetu nahi duten Udal Legea.

UEMAko parte da Bergara, eta adierazpenean jasotzen denez herritarren eta udalen erabakimena jartzen dute auzitan epai hauek: "Gizartearen gehiengo zabal batek babesten ditu euskararen normalizazioa helburu duten politikak. Beraz, epai hauek euskararen biziberritzearen aurkakoak ez ezik adostasun sozial handi baten kontrakoak ere badira. Azken batean, herritarren eta udalen erabakimena jartzen dute auzitan".

EH Bildu: "Suminduta gaude"

EH Bilduk eta EAJk bi adierazpenen alde bozkatu zuten, sententzia hauek euskararen aurkako eraso larriak direla iritzita. EH Bilduko Maite Usabiagak dio "haserre eta kezka handiz" bizi dutela egoera: "Azken epai horiek sumindu egin gaituzte. Euskararen normalizaziorako



Alkatea PSE-EEko Alberto Alonsori berbetan, euskararen aurkako epaien harira. J.B.L.

garatu diren hizkuntza politikak ez dira kapritxo bat izan; denborak erakutsi digu beharrezkoak zirela hizkuntzaren biziraupenerako. Eta ez hori bakarrik: euskarari estatus bat ere eman diote lege hauek. Oraindik lan handia dago egiteko, baina esan dezakegu euskaraz egiteko askatasuna badagoela gizarteke esparru batzuetan. Hasten bagara indarrean dauden eta beharrezkoak diren neurri hauek deuseztatzen, atzerapauso handia emango dugu irabazita gennituen eremuetan".

Emakumeek gizarteari egindako ekarpena ikertzeke beka, abian

Udalak, herriko hainbat eragilerekin elkarlanean, *Goruetan* izeneko beka izena emateko epea ireki berri du. Beka honen bidez, emakumeek historian zehar euskal gizarteari egindako ekarpenak ikertu nahi dituzte; iraupena gehienez 18 hilabetekoa izango da, eta ordainsaria, berriz, 12.000 eurokoa. Izena eman daiteke abenduaren 7ra arte, Udalean.

Bekaren koordinazio lanetan aritu dira Laboratorium, Udal Artxiboa, UNED eta Martxanterak, Berdintasun Sailaz gain. Honela azaldu dute beka sortzearen abiapuntua: "Gure herriaren historia eraikitzeke ardatza emakumeen ikuspegi eta ekarpenen balioa ematen ez dien kontaktuzuna izan da. Gizonak izan dira objektu eta subjektu bakarrak; emakumeen ikuspegi ez da aintzat hartu, eta ez dira ikusarazi; gabezia nabarmenak daude eremu guztietan".

EAJ: "Oso larriak dira epaiak"

EAJko Mikel Leteren arabera, sententzia hauek "oso larriak" dira: "Epai hauek kontra egiten diote Eusko Legebiltzarrak onartutako lege bati, eta hankaz gora jartzen du Bergarako Udalaren erabakimena. Hori oso larria da; azken urte luzeetan euskara normalizatzeko Udalak egin duen bide emankorra oztopatzeko neurriak dira. Horregatik, azaroaren 4an Bilbon egongo gara eta dei egiten diegu herritarrei manifestazioarekin bat egin dezaten". EH Bilduk ere herritarrek deitu ditu Bilbora.

PSE-EE: "Errua ez da epaileena"

PSE-EEko Alberto Alonsok bi adierazpenen aurka bozkatu zuen, eta debate "askoz sakonago bat" eskatu. Udalbatzaren aurrean ez zuen bere botoa azaldu, baina honako hau erantzun dio GOIENARI: "Demokrazia batean epaileek ez dute erasotzen, epaileek sententziak ematen dituzte. [...] Epailea esaten ari zaiguna da edo legea gaizki idatzita dagoela edo erakundeak daudela legea behar izan onartezinak diren muge-

taraino eta, beraz, ez dutela legea ondo betetzen. Hortik aurrera, debate askoz sakonago batean murgildu gaituzke. Akaso pentsatu behar duguna da azken 40 urteotan ez dugula asmatu hizkuntza politikekin eta debate hori politikaren mundura itzuli behar dela. Akaso horren gainean egin behar dugu gogoeta, baina ez errua epaileei bota".

Protokolo berria eta hitzarmena

Bestalde, aho batez onartu ziren, besteak beste, indarkeria matxista salatzeke erakundeen arteko bigarren protokoloa -2012an egin zen lehena, baina eguneratzeko beharra ikusi dute talde politikoek- eta Mariaren Lagundiarekin hitzarmena, eskola orduz kanpo ikastetxe kanpoko instalazioek erabilera publikoa izan dezaten.

BIHAR BILBON EGINO DEN MANIFESTAZIOAN EGONGO DIRA EH BILDU ETA EAJ; DEI EGIN DUTE JOATEKO



Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren Seko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, ondoko hau erabaki da behin-behineko izaeraz:

Ondorengo ordenantza fiskalak aldatzea:

1. Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duena.
2. Ekonomi jardueren gaineko zerga arautzen duena.
3. Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duena.
4. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duena.
5. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena.
6. Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen.
7. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden tasak arautzen dituen.
8. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden prezio publikoak arautzen dituen.

Erabakia Udalbatza Osoak 2023ko urriaren 23ko bileran hartu zuen. Erabaki hori behin betiko bihurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritik, behin-behineko erabaki hau 30 lanegun jarriko da ikusgai jendaurrean Udalebako iragarki taulan, interesatuek espedienteaz aztertu eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez jakinaraziko zaio jendeari, eta iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arauzko epea erreklamaziorik gabe igaro ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiriak behin betirako onartuak izango dira akordio berririk hartu beharrik izan gabe.

Bergara, 2023ko urriak 24
ALKATEA



Biaín zuzendaria, Laskurain presidentea eta Etxaniz zuzendaritza batzordeko kidea, aurkezpen ekitaldian. IÑIGO BARRENA

Musika, dantza eta irudiak, orfeoiaren 100 urteak gogora ekartzeko

Mendeurrena ospatzeko kontzertua datorren azaroaren 11n (19:30) egingo dute Udal Pilotalekuan. Urte guzti hauetan mugarri izan direnak oroitu dituzte, musika eta bideoez osatutako bidaia batekin, eta horretan lagunduko dute herriko eragileek

Iñigo Barrena Kortabarria BERGARA Bergarako Orfeoiak mendeurreneko ospakizunetan murgilduta dihardu 2023. urtean; logo aldaketa, Aroztegin egindako erakusketa, mendeurreneko kantua, San Pedro elizan emandako kontzertua eta zendutakoen omenez egindako kontzertua egin dira; orain, ospakizun horiei batuko zaie datorren azaroaren 11n egingo duten orfeoiaren mendeurreneko kontzertua. Bergarako pilotalekuan izango da arratsaldeko 19:30ean, eta abeslari, musikari eta dantzarien artean, 207 lagunek parte hartuko dute *100 urte kantuan* izenburua jarri dioten ekitaldian. "Zaila izango da dena laburbiltzea, 99 urte hauetan gauza asko gertatu direlako: aldaketa asko, jende asko, zuzendari asko, errepertorio asko. Dena 90 minutuko ekitaldi batean batzen saiatu

gara", dio Aitor Biaín Bidarte Bergarako Orfeoiko zuzendariak.

Era berean, orfeoiak gain, azaroaren 11ko ekitaldia Bergara eta bergararrak omentzeko ere baliatu nahi dute: "Bergara ere omendu nahi dugu; azken finean, Bergarako Orfeoia gara eta Bergara izena daramagu alboan. Herria eta bertako eragileak ere omendu nahi ditugu, mende honetan guztian gure alboan izan direlako", dio Biainek.

Mendeurreneko bidaia

Azken 99 urteak errepasatzea zaila den arren, orfeoiko kideek

**KONTZERTUA
STREAMING BIDEZ
IKUSGAI EGONGO DA
ORFEOIAREN YOUTUBE
KANALEAN**

argi dute mendeurreneko kontzertuak bidaia bat izan behar duela. Hori dela eta, emanaldian aurkezle bat izango da, eta 100 urteetako irudi eta bideoen tartetz egingo dute laburpen hori. "Kontzertuaren nukleoa orfeoia izango da, baina argazki eta bideoen bitartez, 100 urteko bidaia bat egingo dugu. Ez da izango kronologikoki egindako bidaia bat, eta tartean eragile ezberdinak egongo dira oholza gainean", dio Biainek.

Zuzendariari omenaldia

Hain zuzen, parte hartuko duten eragile guztien zerrenda horretan egongo dira orfeoiaren azken bi zuzendariak: Cristina Larrañaga eta David Azurza. Biak omenduko dituzte zuzenean pilotalekuan, eta, gainera, bakoitzak pieza pare bat zuzenduko ditu. Horien aurretik beste

100 urte, sei mugarritan

Ekitaldian Orfeoiaren historiaren "laburpena" egiteko, orfeoiak historian zehar izan dituen sei mugarri identifikatu dituzte.

Orfeoiaren hasiera

Orfeoiaren sorrera omenduko dute bloke honetan; hasieran abesten zituzten kantuetako bat aukeratu dute momentu horretarako.

Orfeoia eta organoaren arteko harremana

Bloke honetan, orfeoiaren eta organoaren arteko lotura nabarmendu nahi izan dute.

Orfeoia eta beste eragile batzuk

Herriko eragileak ere orfeoiaren parte aktiboa izan dira urte hauetan, eta horiei ere merezi duten errekonozimendua eman nahi zaie.

Orfeoia eta Bergarako musikalak

Urteetan zehar Bergaran sortutako musikalak erreferente kultural bihurtu dira eta orfeoiko abeslariak ere funtsezko pieza izan dira horretan.

Orfeoiaren kontzertu sinfonikoak

Kontzertu sinfonikoak orfeoiaren bandera izan dira, eta amaieran egingo duten *tutti* erraldoian omenduko dira horiek.

Orfeoiko zuzendariak

Orfeoia mende honetan izan dituen zuzendariak omenduko dituzte; egun bizi direnek pieza pare bat ere zuzenduko dituzte azkenekoz.

hiru zuzendari izan zituen Bergarako Orfeoiak: Roman Oyarzabal, Miguel Gonzalez Bastida eta Jesus Barroya, hurrenez hurren; guztiak zenduta daude, baina merezitako aitortza jasoko dute horiek ere.

Sarrerak, salgai

Kontzerturako sarrerak eguaztenetik salgai daude 10 eta 12 euroren truke. Horiek erosteko bi modu egongo dira; alde batetik, asteazkenetan Seminarixoko leihatilan, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitartean; edo *Seminarixoa.eus* webgunean. Guztira 800 sarrera inguru jarriko dituzte salgai, baina joan ezinda gelditzen denak streaming bidez jarraitu ahalko du kontzertua. Orfeoiaren webgunean zuzenean eskainiko dute emanaldia Goienaren laguntzari esker, eta, ondoren, Goiena telebistan eta *Goiena.eus* webgunean ere ikus-

gai egongo da mendeurreneko kontzertua.

Proiektu gehiago

Mendeurreneko ospakizunak, baina, ez dira azaroaren 11ko emanaldiarekin amaituko. Urte bukaerarako, beste bi proiektu borobiltzea aurreikusten dute. Alde batetik, Bergarako Orfeoiari buruzko dokumentala egiten ari dira, bideo, argazki eta adierazpenekin osatuta. "Bideo historiko bat egin nahi dugu, adierazpen, bideo eta argazki ugari izango dituena. Ilusio berezia dugu", dio Karlos Etxaniz Bergarako Orfeoiko zuzendaritzako kideak.

Bestetik, orfeoiaren webgunea ere berritzen dabilta, herritarrek zein nahi duen orok taldeari buruzko informazioa eta beste-lako guztiak era txukun batean aurkitu ahal izateko. "Barne erabilerarako zein herritarrentzako, webgunea egokitzen eta osatzen ari gara azken hilabeteetan. Etorkizunera begira garrantzitsua izango den proiektua dela uste dugu, bertan informazio eta dokumentu ugari batuko ditugulako", azpimarratu du Etxanizek.

**SARRERAK SALGAI
DAUDE 10 ETA 12
EUROTAN,
SEMINARIXOAN ETA
ONLINE**

Boxeo-gosea aseta, hurrengoaren zain

Bergarako Udal Pilotalekua jendez bete zen zapatuan Soraboxek antolatutako 10 borrokaldiko boxeo jaialdia ikusteko. Muniategiandikoetxea, Zalakain eta Kortabarria bergararrak igo ziren ringera, eta hiru garaipenak etxean geratu ziren

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Bergarako Udal Pilotalekua boxeozalez bete zen joan zen zapatuan Sorabox taldeak Bergaran antolatutako boxeo jaialdian. Debagoienean egindako hirugarren jaialdia zen, Bergarako bigarrena –iazko uztailean Bergaran izan zen, eta joan den otsailean, Arrasaten–.

Frontoia bete egin zen hamar borrokaldiak ikusteko, baina hiru bergararren –Ibon Muniategiandikoetxea, Josu Zalakain eta Andoni Kortabarria– saioek piztu zuten ikusmin gehien; harmailetako zaleen artean nabaritu zen hori, herriko boxeolariak etengabe animatu baitzituzten. Jalil Lamsallak –76 kg-tan– eta Yassine Bouchar –91 kg-tan– arrasatearrak ere Daniel Zuzarrenen (Ipar Box-eko kidea) eta Aritz Rekaloren aurka borrokatu ziren.

Hirutik hiru bergarrentzat

Ibon Muniategiandikoetxea izan zen ringera igo zen lehen bergararra –hirugarren borrokaldia, 60 kilo azpitik–. David Guerrero izan zuen aurkari, eta K.O. tekniko baten bidez garaitu zuen. Muniategiandikoetxeak Guerrerori gibelaldean ukabilkada eman zion, eta Napar Sustraiak taldeko borrokalariak hanka lurrera bota behar izan zuen.

Soraboxeko entrenatzaile Ixa Rodriguez ibili da antolatzaile lanetan, eta, hark azaldu zuenez, borrokaldirik onenak azkeneko uzten saiatzen da; hala, Josu Zalakain eta Andoni Kortabarria bergararren saioak utzi zituen bukaerarako.

Josu Zalakainek Adrian Romero izan zuen aurkari 75 kilo borrokaldian. Borroka nahiko parekatua izan zen, eta bergararrak aitortu zuen garaipena ez zela "erraza" izan. Azkenean, epaileek txartelak kontsultatu ostean, Zalakainek irabazi zuen



Soraboxeko kideak, zapatuan, Bergarako Udal Pilotalekuan. JOKIN BEREZIARTUA

puntuetara. "Denbora osoan, presioa sartzen ibili da, eta niri horrelako borrokalariak deserosoak iruditzen zaizkit. Gogorra izan da. Irabazi dugu eta lan polita egin", adierazi zuen borroka amaituta.

Azkenik, Andoni Kortabarria eta Asier Andreu –76 kilo– izan ziren aurrez aurre ringean. Borrokaldi izarrean, Kortabarriak erakustaldia eman zuen, eta bigarren roundean, "amateurretan gutxitan" ikusten den irudia ikusi zen. Andreuk besoak altxatzen ez zituela ikusita, entrenatzaileek toalla bota zuten ringera, eta garaipena Bergaran geratu zen. "Amets batean pozik" agertu zen bergararra lehia irabazita: "Amateurretan gutxi ikusten da hori. Azkenean, maila altxatzen joaten da, eta ondo atera zait. Kolpe onak eman dizkiot eta pozik nago". Gurasoei eskaini zien garaipena.

HURRENGO BOXEO JAIALDIA 2024KO URTARRILEAN EGITEA AURREIKUSTEN DU SORABOXEK

Afizioa gora

400dik gora sarrera saldu zituzten, eta Rodriguez oso gustura agertu zen izandako erantzunarekin. "Hau hasi besterik ez" dela egin azpimarratu zuen.

Zalakainen hitzetan, berriz, boxeoa moduko kirola "beti izan da gaizki ikusia edo tabua", eta jendearen pentsaera aldatzen doala ikustea positibotzat baloratu du: "Lagunak, laneko jendea... Denetarik etorri da. Hemen herrian izanda, sekulakoa da". Kortabarriak boxeo jaialdian jasotako zaleen berotasuna nabarmendu zuen: "Azkenean, hiru bergarar gara, kuadrilla handia dugunak eta kalekoak. Jendearekin egoten gara, eta igartzen da eta eskertzen da. Azkenean, egiten dugun lan guztiaren emaitza da, eta ederra da".

Bergararrek lanean jarraitzeko erronka dute, eta Kortabarriak arantza kendu nahi du: "Aurreko urtean Euskadiko Txapelketan hortxe geratu nintzen, eta aurten beste saiakera bat egin beharko dut".

Zapatukoa amaituta, Ixa Rodriguezek aurreratu zuen 2024ko urtarrilean beste jaialdi bat egitea aurreikusten dutela.



Infernukua tabernatik Kruz Gallastegira bitartean dauden lanak. BERGARAKO UDALA

Irisgarritasuna hobetzeko lanei berrekin diete Masterrekan

Obrak Gabonetarako amaitzea aurreikusten du Bergarako Udalak, eta trafikoan ez dute eraginik izango

I.A.A. BERGARA

Masterreka kalean oinezkoen irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko lanei berrekin diete Bergarako Udalak. 2023ko lehen bost hilabeteetan egin zituzten kaleko irisgarritasuna hobetzeko lanak, eta, oraingoan, Infernukua tabernaren aldeko espaloitrik Kruz Gallastegi kalera bitartean etenda dagoen espaloiri jarraipena emango diete.

Gainera, oinezkoendako sarrera bermatu nahi da Masterreka kaleko 17-19 atarrietara nahiz espaloira; baita Masterrekako 9., 11., 13. eta 15. zenbakietako atari, lokal eta garajeetara sartzeko plazatxoetara ere.

Egingo dituzten lanak

Lan hauekin, azalera egokitu eta espaloi kotak altxatuko dituzte, eta Udalak aurreratu duenez, lanak aprobetxatuta eremu horretan euri-uren eta ur beltzen

instalazioak berrantolatuko dituzte. Era berean, zebrabidea egokituko dute araudi berriaren arabera, eta marka zein seinaleztapen horizontalak eta bertikalak jarriko dituzte.

Udalak azaldu du Masterreka kalean, azken urteetan egindako obren zatirik handiena amaituta badago ere, hobekuntzak egiten jarraitzen dutela "bergararentzako herri irisgarriago eta seguruago bat lortzeko: "Obrak hauekin oinezkoen pasabide seguru bat bermatuko diegu".

Abendurako amaituta

Construcciones Artzamendi enpresari esleitu zaizkio lanak –kontratuaren prezioa 39.229,89 eurokoa da–, eta, Udaletik jakinarazi dutenez, "dena ondo bidean", Gabonetarako amaituta egongo dira obrak. Halaber, lanek ez dute eraginik izango trafikoan.

OHARRAK

Bisita gidatu eta tailerrera izen-ematea

Laboratoriumeko *Emakumeak botanikan* erakusketaren bisita gidatua eta zianotipia tailerra egingo dituzte hilaren 18an, 11:00etan. Izen-ematea: 943 76 90 03. Plazak mugatuak dira.

Liburu aurkezpena, hilaren 9an

Oso latza izan da aurkeztuko dute 19:00etan, Olaso dorrean. Liburuaren egile Xabier Mendigurenek eta Mikel Soto idazle eta Nafarroako Torturatuen Sareko kideak hartuko dute parte.

Telmo Iruretararen bakarrizketa Osintxun

Azaroa Gaztainatan ekimenaren baitan bakarrizketa eskainiko du Iruretak, gaur, 22:00etan, Osintxuko Txuringo tabernan.

ETXE BIZITZA ETA ERAIKUNTZA

Etxeak, neurrira

- Azken etxebizitza promozioak
- Erosotasuna eta eraginkortasuna
- Eraikin kontzeptu berriak
- Dekorazioa eta diseinua, nahieran



Orena eskaintzeko diseinatutako promozioa

Grupo Eibarrek Lorentxoko promozioa du Bergaran, Ernai kalean. Etxebizitza gutxi batzuk dituzte salgai: beheko solairuan eta atikoan, besteak beste. Etxebizitza guztietan, sukaldea jantzita dator, eta logelak horma-armairuarekin

Grupo Eibar taldeak azken etxebizitzak ditu salgai Bergarako Ernai kalean, Lorentxoko promozioan. Dagoeneko hasita dagoen eraikinean etxebizitza gutxi batzuk geratzen dira salteko: beheko solairuan, bi logelako etxeak; eta, goiko solairuan, atikoa, hiru logelakoa.

Badira irisgarriak diren etxebizitzak; horiek, egokituta daude mugikortasun arazoak dituztenentzako.

Dekorazio aukera zabala

Terrazadun etxebizitza argitsuak dira Lorentxoko promozioakoak, bezero bakoitzak nahi bezala pertsonalizatzeko auke-

rarekin eta gehigarri ugariarekin. Sukaldeak erabat jantzita datoz; bai sukaldeko altzariek eta baita etxetresna elektrikoekin ere. Gainera, bezero bakoitzak bere gustuaren arabera pertsonalizatzeko aukera asko izango ditu. Hau da, sukaldeko altzariak aukeratu ahal izango ditu eskaintza baten barruan. Logeletako armairuak ere jantzita etorriko dira. Horma-armairuak izango dira eta bezeroak aukeratu du bai kanpoaldeko itxura eta baita barrualdeko espazio banaketa ere. Modu horretan, promozioko etxebizitza bakoitza bakarra izango da.

Bainugeletan, konketa azpiak armairuekin hornituta etorriko dira. Espazio guztiak ondo aprobetxatu dituzte, eta bi logelako etxebizitzek bi bainugela izango dituzte. Gainera, zoru erradiatzailea izango dute etxebizitza guztiek.

Garaje itxiak eta irekiak

Etxebizitzaz gain, garajea eta trastelekua erosteko aukera ere egongo da. Garaje itxiak edo marradunak daude aukeran, eta baita trastelekuak ere –sotua eta erdisotua duten eraikinak dira–. Garajeetara sarbide zuzena egongo da igogailu bidez eraikinetik bertatik.



Lorentxoko promozioa.

Kalitate eta prezio ona

Kalitateari eta prezioari begiratuz gero, maila altuko etxebizitzak dira Grupo Eibarrek Lorentxokon eskaintzen dituenak. Bergarako merkatuko etxebizitzarik ikusgarrienak eskaintzen dituzte: pertsonalizatuak, kalitatezko detaileekin, eta talde handi baten bermearekin.

Lorentxoko auzuneak gazteen-tzako bizitza-espazioa eskaintzen du; familientzat egokia dena,

berdeguneak eta haurrentzako parkeak dituena. Terrazadun etxebizitza argitsuak ditu, gainera; eta baita igerileku txikiak dituzten atikoak ere. Etxebizitza erosoak eta praktikoak dira, eta metrotan eraginkorrak.

Grupo Eibarrek 50 urteko beteko ditu 2024an. Urte horietan guztietan promozio mordo jarri ditu martxan, bai Gipuzkoan, bai Bizkaian. Lorentxokoren atzean, beraz, marka handi baten bermea dago.



Ortuzal Promociones SLren promozioa etxebizitzak.

Ondo eraikitako etxebizitza modernoak

Ortuzal Promociones SLk Aretxabaletan eta Antzuolan ditu etxebizitza promozioak. Aukera eskaintzen dute planoaren gainean aldaketak egin, eta etxebizitza norbere gustura diseinatzeko; horrez gain, promozioak bisitatzeko aukera dute interesatuek

Ortuzal Promociones SLk bi promozio ditu esku artean balaran. Batetik, Aretxabaletako Iturriza plazan, 35 etxebizitzako promozioa dute; eta, bestetik, Antzuolan, Kalebarren kalean, 11 etxebizitzako promozioa. Bi promozioak toki ezin hobean daude kokatuta. Horrez gain, etxebizitzaren kalitatea gorai-patzeko da.

Aretxabaletako eskaintza

Aretxabaletako promozioaren kokalekua nabarmendu dute sustatzaileek: plazatik eta eskolatik gertu geratzen da Iturriza plaza. Modu horretan, Aretxabaletak eskaintzen duen lasaitasunaz gozatzeko aukera izango du bezeroak. Ortuzal Promociones SLk bezeroari eskaintzen dion arreta eta aldaketak egiteko aukerak nabarmendu daitezke, baita bezeroen eskaerak entzun eta betetzeko prestutasuna ere. Etxebizitza modernoak, argitsuak eta ondo eraikitakoak izango dira Aretxabaletakoak. Sukaldeak altzariz eta etxetresna elektrikoak jantzita etorriko dira, gresezko zoruarekin, eta etxebizitza zoru

erradiatzailearen bitartez berotuko da.

Antzuolan, trastelekuarekin

Antzuolako promozioa etxebizitzak kalitate gorenekoak dira, balkoi zabalekin eta zortzi metro koadroko trastelekuarekin. Antzuolako kasuan ere, etxebizitza guztietako sukaldeak erabat jantzita datoz. Gainera, zoru erradiatzailea izateaz gain, hozgarria ere bada. Aerotermin sistemari esker berogailua eta ura berotzeko aukera egongo da promozio berrian. Modu horretan, ingurugiroa zaindu eta etxeko ekonomian laguntzeko aukera aprobetxatzeko dute bezeroek.

Aipatutako bi promozioak azken fasean daude: etxebizitza guztiak ia bukatuta daude, eta Aretxabaletan hasita daude eraikineko kanpoaldeak egiten, eta Antzuolan laster hasiko dira lan horiekin.

Ortuzal Promociones SLko arduradunek nabarmendu dute bai Aretxabaletan eta baita Antzuolan ere etxebizitzak bertatik bertara ikusteko aukera dutela interesatuek.

Etxebizitza kontzeptu berri bat, San Andresen

San Andres Homes etxebizitzaren proiektuarekin ari da lanean Neinor Homes enpresa Arrasaten. 120 etxebizitza ditu, bi, hiru eta lau logeladunak; guztiak daude terraza zabalez hornituak, eta udalerrian ikusi ez diren gune komunak eskaintzen dituzte

Neinor Homes enpresa sustatzailea ari da Arrasateko San Andres auzoko urbanizazio berria eraikitzen. Promozioa eraikuntza-fasean dago; urbanizazioaren eraikuntza oso aurrerata dago, eta enpresaren hasierako helburua beteko dela aurreikusten dute, hots, aurtengo urte amaierarako etxebizitzak entregatuko dituztela espero dute Neinor Homes-eko kideek.

Etxebizitzaren eraketa

San Andres auzoko urbanizazio berria bi, hiru edo lau logelako etxebizitzek osatuko dute. Etxebizitza horien barruko banaketa egiteko, azterketak egin di-

tuzte, hala, espazioen, argiaren eta bisten aprobetxamendua ahalik eta gehien optimizatzeko. Etxebizitzaren erosotasuna maximizatzeko, guztiak lurzoru erradiatzailea dute, eta horrek ongizate sententzia sortzen du beroaren banaketa homogeneoari esker. Gainera, altzariz eta etxetresna elektrikoak (labea, mikrouhin-labea, kanpaia eta bitrozeramika) hornitutako sukaldeak, horma-armairuak eta orientazio ezin hobea duten terraza zabalak izango dituzte.

Urbanizazio berritzailea

San Andres auzoko urbanizazio berria itxia da, eta aisialdi pri-

baturako espazio zabalak ditu bizilagunentzat, baita bizikletak uzteko lekua edo haurrentzako jolasgunea ere. Hala, giro osasungarria eta jasangarria izateagatik nabarmentzen da. Egoiliarrek, gainera, udalerrian inoiz ikusi ez diren gune komunak ere izango dituzte: *gourmet* areto bat eta gimnasio eskusibato bat, esaterako. Horrek guztiak bizimodu paregabea eskainiko dio bertan bizitzea aukeratzeko duen pertsonari.

San Andres Homes-ek apartamentu ugari ere izango ditu; 240 garaje-plaza, zehazki. Batzuk box formatuan, bi plaza itxirekin, eta beste batzuk, irekiak. Sotoan,



San Andres auzoko urbanizazioaren irudia.

gainera, trastelekuak daude kokatuta. 200 metro koadroko merkataritza-lokala ere badu, etorkizunean edozein eratako saltoki bat jartzeko bertan.

Pisu pilotura bisita

Duela gutxitik, pisu pilotu bat ikusteko aukera eskaintzen da, interesdunek bertatik bertara ikus dezaten etorkizuneko etxebizitza. Bisita gidatu eta gertu dago pisu hori; horrela, etorkizuneko egoiliarrek pro-

mozio honek eskaintzen dituen kalitatea eta estiloa aurrez aurre ikusi ahal izango dituzte.

Giltzak ematea

San Andres auzoko etxebizitzaren proiektu berri hau 2021ean merkaturatu zen, eta lehenengo etxebizitzak aurtengo abendurako ematea aurreikusten du enpresa sustatzaileak. Horrek esan nahi du itxaronaldia bukatzeaz dela bizitza berri baten bila dabilzanentzat.

Azken etxebizitzak!

TERRAZA
PRIBATUAGOAK
SERIETIK DATOR LURZORU
ERRADIATZAILEA
ETXEBIZITZA BERRIETAN

Berriz ere

lorentxoko
P25 · bizigune berria

Gure Lorentxoko maiteak berrasmaten jarraitzen du eta Bergarako higiezin merkatuko etxebizitzarik ikusgarrienak eskaintzen dizkizu.

Oraingoan, bereziki pertsonalizatuak, maiteminduko zaituzten xehetasun guztiak eta, nola ez, GERE bermearekin.

Zatoz Lorentxokoa oraindik eskuragarri dauden etxebizitza berriak ezagutzera.

Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat **egokitutako etxebizitzak** ere badaude. Galdetu lezaguzu.

BERGARA · www.lorentxoko.com

GE grupo eibar
inmobiliario
www.grupoeibar.com

GRUPO EIBAR-EN BULEGOA: 943 316 611
Email, 1 · 20570 BERGARA. 618 614 541

E: comercial@grupoeibar.com

Efizientzia energetikoa eta irisgarritasuna oinarri

Eraikin mota ezberdinak eraberritzeko aukera eskaintzen dute Biark Studio SLP eta Amaia Igartua arkitektura enpresek. Martxan jartzen dituzten proiektuetan, bi ardatz nagusiri ematen diete garrantzia berezia: efizientzia energetikoari eta irisgarritasunari

Etxebizitzak eta baserriak zaharberritzen eta birgaitzen jarduten dute, batez ere, Arrasateko Biark arkitekto taldeko kideek eta Oñatiko Amaia Igartua arkitektura taldekoek. Haien eginbeharren artean daude, besteak beste, teilatuak, fatxadak, igogailuak eta isolamenduak eraberritzea eta etxeko erreformak egitea.

Eraikin baten zaharberritze proiektua hasi baino lehen, badaude kontuan hartu beharreko hainbat kontu. Etxebizitza bakoitza ezberdina da, ez dituelako ez egitura ez ezaugarri berdinak, eta, horregatik, badaude kontuan hartu behar diren hainbat alderdi, nahiz eta Igar-



Baserri baten zaharberritzea.

tuak guztien gainetik bat nabarmentzen duen: "Segurtasunarena da lehenengo hartu behar den neurria". Horrez gain, eraikinaren orientazioa, haren ezaugarri nagusiak –etxe-aurrea, teilatua, leihoak, beheko solairua– eta instalazioak ere kontuan hartzen dira.

Proiektuen ardatz nagusiak

Gaur egungo eraikinaren zaharberritze proiektuek badituzte bi ardatz nagusi: efizientzia energetikoa eta irisgarritasuna. Biark arkitekto taldekoek diote "gaur egun ematen diren dirulaguntza asko efizientzia energetikoari eta instalakuntzen irisgarritasunari bideratuta" egoten direla.

Eraikin berrien inguruan hitz egiterakoan, efizientzia energetikoko instalakuntzak zein irisgarriak diren instalakuntzak eraikitzea izaten da arkitektura taldeen proposamen eta helburu nagusia. Hala ere, bi kontu horiek ez dira beti betetzen eraikin baten zaharberritzeari dagokionez. Hala ere, Biarkek zein Amaia Igartuak badute horri erantzuna emateko modurik: "Energia

berritzagarriarekin eraikin osoa hobetzea lortzen ez badugu, proposatzen dugu isolatzaile egoki bat izatea eraikinean, horrelako instalazioen berritzea egiteaz gain. Irisgarritasunaren kasuan, berriz, proiektuen helburua eraikin berrietan bete behar den irisgarritasun araudia betetzea izaten bada ere, kasu batzuetan, helburua eraikinaren irisgarritasun ezaugarriak hobetzea izaten da azkenean, eraikinaren beraren ezaugarriak irisgarritasun araudia betetzea zaildu egiten dutelako".

Garrantzi handia eman behar zaion bi ezaugarri dira efizientzia energetikoarena eta irisgarritasunarena eraikin berriak eraikitzerakoan edo dagoeneko eraikita dauden zaharberritzerakoan, eta Amaia Igartua arkitekto taldekoek zein Biark arkitektura taldekoek ahalegin berezia egiten dute bi alderdi horiek lantzerakoan. Azken horiek, gainera, nabarmentzen dute "jendearen bizi kalitatea hobetzeko bi kontzeptu oso garrantzitsu" direla, eta horregatik aritzen direla kontu horiekin arreta bereziz lanean.

eki termik
efizientzia energetikoa

Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe!

ETXEBIZITZA BERRITZU BEHAR AL DUZU?

Efizientzia energetikoa hobetzeko esku-hartzeetan espezializatutako lan taldea

BASERRI ZEIN ETXEBIZITZA ERREFORMA INTEGRALAK



www.ekitermik.com

ekitermik@ekitermik.com

688 870 219

Arrasaten gaude, Polo Garaia, Goiru kalea 1

UGARTE
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com



EZOHIKOA **ZURE-ZUREA**

BISITATU PISU PILOTUA



Bizimodua aldatzeko etxebizitza estilo berri bat iritsi da
GUSTATZEN ZAIZUNA ALDATU GABE

Bizikleta-aparkalekuak • Jolasguneak • Gourmet aretoa • Gimnasioa

900 11 00 22 • neinorhomes.com

Berezitasun du 'giltza eskura' Ekitermik-ek

Pisuen, etxebizitza familiabakarren eta baserrien eraberritze integralak egiten ditu Arrasateko Ekitermik kooperatibak, eta obrako prozesu guztiaz arduratu gabe, *giltza eskura* zerbitzua da bere berezitasunetako bat. Proposamen bat egiten diote bezeroari, eta, onartu ostean, gainontzeko urratsez arduratzen dira, hala nola proiektuak egiteaz, dirulaguntzak eskatzeaz eta gremioak kudeatzeaz. Bezeroak dekorazioa hautatu behar izaten du, baina, osteran-

tzean, ez du zereginaz arduratu beharrik.

Efizientzia energetikoa

Ekitermik-ek helburu du bezeroen etxebizitzak berritzea, horretarako efizientzia energetikoa tresnatzat hartuta. Bezeroak nahi ala ez, egin beharreko proiektu guztietan beti hartzen dute kontuan eraikinaren alderdi energetikoa; etxebizitzak egunerokotasunean ahalik eta energia gutxien kontsumitu dezan soluzioak ematen ditu lantaldeak. Alegia, eskaintzan beti

dute etxebizitzaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko neurrien proposamen bat. Askotariko instalazioak, elementuak eta materialak eskaintzen dituzte, hori baita eurek duten lan egiteko modua, azken hitza bezeroak badu ere.

Instalazioei dagokienez, etxebizitza pasiboetan dute jarria arreta azkenaldian. Askotarikoak dira energia aurrezteko moduak, hala nola leihoak eta isolamendua, baina badira gehiago ere; esate baterako, aeroterminia instalazioak egiten dituzte, eta hori



Ekitermik taldearen proiektuetako bat.

zoru erradiatzailearekin konbinatzen dute. Alabaina, orain, beste lamina bat jartzen hasiak dira etxebizitzetan, hermetikoa-goak izateko. Era horretan, kontsumoa jaitea dute helburu, berogailuarena ia nulua izateraino. Orain arte, familia baka-

rrerako etxebizitzetan jarraitu izan dute prozesu hori, baina, orain, pisuetan ere hasiak dira lanean.

Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean dago Ekitermik, eta bailara osoko lantalde batek osatzen du.

Efizientzia eta osasuna, Barandiaranen xedek

Etxebizitzan, lokalen eta bulegoen eraberritze eta birgaitze lanetan aritzen da Beasaingo Barandiaran Berrikuntzak enpresa. 40 urte baino gehiagoko esperientzia du, eta lantaldeko profesionalak ingurumenarekin eta pertsonen osasunarekin kontzientziatuta daudela jakinarazi dute. Hala, etxebizitza eraginkorak, erosoak eta osasungarriak egitea dituzte helburutzat. Proiektu guztietan lehenesten dituzte emaitza osasungarriak izango dituzten eraikuntza-sistema eraginkorak.



Barandiaran Berrikuntzak enpresaren eraberritze bat.

Horretarako, bezeroei entzuten diete lehendabizi, dituzten beharrak ulertzeko eta proiektua behar eta nahi horietara egokitzeko. Horretarako, profesionalak osatutako lantaldea dute; arkitekto teknikoak, barnealdeko arkitektoak eta dekoratzaileak, hain zuzen ere. Era horretan, asmoa da proiektu bakoitza emaitza on baterako pertsonalizatu ahal izatea.

Eraberritze urratsak

Efizientzia energetikoa erdies-teko, Barandiaranek hainbat teknika darabiltza, hala nola fatxadaren birgaitzeak, etxebizitzaren eraberritze integralak eta partzialak, leiho eraginkorren ordezkapenak eta energia berri-eragileak dituzten instalazioak egiten dituzte. Azken horretan, hain justu, biomasa,

berogailuak, eguzki-energia termikoa eta fotovoltaiakoa, aeroterminia, geoterminia eta kondentsazio-galdarak darabiltzate sistematzat egunerokoan, besteak beste. Horretarako, gainera, propio kualifikatutako langileak eta instalatzaileak dituzte.

Are gehiago, lan horiek guztiak egin ahal izateko, Passivhaus institutu ofizialak egiaztatutako langileak dituzte, etxe mota hauek diseinatzeko eta egiteko *Designer* eta *Tradesperson* ziuertagiriak dituztenak.

Harremanetarako

Beasaingo Senpere kalean dute bulegoa, eta bertan eskaintzen dute aurrez aurreko zerbitzua. Hala ere, info@barandiaran.eus helbide elektronikoa edo 943 887 972 telefono zenbakia ere badituzte interesa dutenen eskura.



ARKITEKTURA

**Baserriak
Fatxadak
Iggogailuak
Teilatuak
Dirulaguntzak
ITE**

amaia igartua ARKITEKTURA

Lehen Orain





677 31 20 57
✉ amala@alarkitektura.com
🌐 www.alarkitektura.com
📍 Bidebarrieta 13. A lokala. Oñati

Zatoz gure promozioak bisitatzera.

%100
Aerotermitia
Antzuolako
promozioan



Antzuolako promozioak

- ✓ 8 m² baino gehiagoko trasteleku zabalak
- ✓ Guztiz hornitutako sukaldea
- ✓ Garaje-aukera
- ✓ Zoru erradiatzailea eta hozgarria



Aretxabaletako promozioak

- ✓ 2 eta 3 logelako etxebizitzak
- ✓ Guztiz hornitutako sukaldea
- ✓ Garaje-aukera
- ✓ Zoru erradiatzailea

ORTUZAL PROMOCIONES S.L.
GRUPO ORTUIBAR



+info T. 943 761 118
www.grupoortuibar.com



Bezeroei egokitutako dekorazio proiektuak

Etxebizitzaren dekorazioa egiteko garaian zalantzak dituenak edo nondik hasi ez dakienak Beasaingo Barandiaran Berrikuntzak enpresara jo beharko luke lehenik eta behin. Gaur egungo dekorazio tendentziak, materialak, koloreak eta bestelakoak marka handiek ezartzen dituzte, baina Barandiaran Berrikuntzetan tendentziarik onenak, bezeroaren beharrak eta gustuak betetzen dituztenak dira.

Horregatik, Barandiaranen helburu nagusia bezeroari entzutea, hura ulertzea eta proiektuak euren beharretara egokitzea da, ergonomiari dagokionez zein sentsazio aldetik. Horretarako, Barandiaranek arkitekto teknikoak, barnealdeko arkitektoen eta dekoratzaileen talde zabal bat du, bezero bakoitzaren proiektua pertsonalizatzeko, hala, amaierako emaitza egokia izan dadin.

tenbide tekniko nahiz diseinuzko egokienak aukeratuz, betiere, bezeroa erreferentziatzen hartuta. Horrez gainera, proiektu pertsonalizatu horiek egiteko benetako material eta osagarriak erabiltzen dituzte, baita hiru dimentsioko informatika-programak ere, diseinuak hobeto ikusi ahal izateko. Era berean, segurtasun- eta osasun-arloko alderdien, lizentzia eta baimenen, txostenen eta dirulaguntza eskaeren, eta behar diren baliabideak bilatzearen kudeaketa ere egiten dute.

Proiektu pertsonalizatuak

Barandiaran Berrikuntzetan, bezeroen proiektuak osotasunean lantzeaz arduratzen dira, bezeroari aholkuak emanez eta ir-



Dekorazio proiektu pertsonalizatuak egiten dituzte.

Prozesuan, laguntza

Diseinu pertsonalizatuaren kasuan, gainera, bezeroari laguntza ematen diote prozesuan zehar, publikoari irekita duten erakusketan batean dituzten aukera ezberdinak erakutsiz. Bertan, eraikitze eta instalazioko ma-

terialak, eta diseinuaren bukararako material osagarriak dituzte. Hain zuzen, erakustoki horren bitartez, bezeroari gaur egungo merkatuak eskaintzen dituen aukera guztiak erakutsi, eta horiek aztertzen laguntzen diete proiektu guztian zehar.

Neurrira egindako diseinu pertsonalizatuak

Etxea dekoratzeko altzari eta bestelakoak bila dabilenak Bergarako Ugarte Aroztegiara joan besterik ez du, bertakoek badakite eta horiek direla sarritan interiorismo-proiektu askotan irtenbiderik onenak. Hain justu, bezeroen beharretatik eta euren beharretara egokituta fabrikatzen eta eskaintzen dituzte altzari, koltxo edo dekoraziorako osagarriak, eskura dituzten espazio guztiak aprobetxatuz, zentimetro bakoitza baliatuz, eta uneko joera berriei arreta berezia jarrita, hala nola materialei, ko-



Ugarte Aroztegiaren diseinu pertsonalizatuak egiten dituzte.

loreei, ehundurei eta dekorazioari dagokienez.

Horretarako, aurrez aurreko harremana dute bezeroekin, dituzten nahiak ahalik eta hobekien ezagutzeko. Altzariak bete beharreko lekua, neurriak, betebeharrak eta eskura duten aurrekontua ere aztertzen dituzte, jarraibide estetiko batzuk jarraitzearekin batera, azken emaitza ahalik eta egokiena izateko.

Diseinu pertsonalizatuak

Profesionalek horrelako altzari bat diseinatzea nahi duenak, beraz, Bergarako Ikerleku kalean dagoen dendara jo dezake eskaerarekin. Are gehiago, dendan bertan, egongelen eta logelen askotariko diseinuak dituzte ikusgai, eta baita sofak, alfonbrak eta dekoraziorako beste elemen-

tu batzuk ere, baliagarriak izan daitezkeenak neurrira eginiko altzariekin konbinatzeko; betiere, egunean dauden joera berriak gogoan hartuz. Baina ez dira soilik etxeetako altzarietara mugatzen, aholkuak ematen baitituzte lokal komertzialetrako eta bulegoetarako ere; izan ere, aurreproiektuak eta aurrekontuak egiten dituzte altzari dendara gerturatuz gero.

Aroztegiaren eginikoak

Aroztegiaren berriz, neurrira eginiko altzarietaz gain, beste lan batzuk ere egiten dituzte: lurzorua, ateak, leihoak, armairuak... Hain zuzen, bezeroen eskakizunetan oinarritzen diren produktuetan, eta neurrira eginiko altzari eta lanetan datza Ugarte Aroztegiaren berezitasuna.



BIARK STUDIO

arkitektoak

- Ziurtagiri energetikoak
- I.T.E.(eraikinen ikuskapen teknikoak)
- Teilatuak eta fatxadak
- Igogailuak eta irisgarritasuna
- Etxebizitza eta lokalen erreformak
- Baserriak eta txaletak
- Etab...

www.biark.net



Usaetxe plaza 1 behea, Arrasate - Tel.: 943 79 80 33 biark.arkitektoak@gmail.com

Etxebizitza efiziente eroso eta osasungarriak



Barandiaran

= berrikuntzak | = materialak | = berriztagarriak

Goienakide 2024 paretako egutegia

Debagoiendarron egutegi osatuena



Debagoieneko argazkilariek ateratako argazkiak.

+ Neurri egokia, tokia jantzi dezan traba egin barik: 245 x 368 mm.

+ Argazki-buelta zuria, edozein paretatan ondo eman dezan.

Debagoieneko egun seinalatu guztiak jasotzen dituen egutegia egin dugu **lehenengoz**, eta azaroaren 24an jasoko duzue **Golenakideek** etxean.*



2 ale
Goienakide bakoitzak

Bi ale jasoko dituzue bakoitzak. **Horrela, ale bat opari egin ahal izango diozue zuek nahi duzuenari.**

*Aste horretan ez da 'Puntuak' aldizkariaren alerik banatuko.

Maiatza Loraila

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31				
Lehendakoa	Bigarrena	Hirugarrena	Laugarrena	Bostgarrena	Seigarrena	Zazpigarrena	Lehendakoa	Bigarrena	Hirugarrena	Laugarrena	Bostgarrena	Seigarrena	Zazpigarrena	Lehendakoa	Bigarrena	Hirugarrena	Laugarrena	Bostgarrena	Seigarrena	Zazpigarrena	Lehendakoa	Bigarrena	Hirugarrena	Laugarrena	Bostgarrena	Seigarrena	Zazpigarrena	Lehendakoa	Bigarrena	Hirugarrena	Laugarrena	Bostgarrena	Seigarrena	Zazpigarrena

Hil-izena, euskalkian.

Efemerideak.

Debagoieneko herrietako eta auzotako jaiak.

Egun bereziak.

Esaera zaharrak.

Euskal Herriko jalegunak.

Ilargiaren aldiak.

Tenporak.

Aurreko eta osteko hilen egutegia.

goiena kide

Eta jarrai dezatela

+ Barruan, Debagoieneko lanbideen gaineko 10 orrialdeko erreportajea.



goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia



Trekutz parke eolikoaren aurkako aurrerapausoak

Capital Energy enpresak dituen asmoen berri eman du Udalak, eta, aurreratu duenez, proiektuari alegazioak aurkeztuko dizkio; txosten tekniko bat egingo dute. Herritarrek ere mobilizatzeko erabakia hartu dute; astelehenean egingo dute bilera irekia

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Trekutz parke eolikoaren berri emateko, batzar irekia egin zuen Antzuolako Udalak astelehenean, Capital Energy enpresarekin batzartu baitziren duela pare bat aste, eta, jakinarazi dutenez, alegazioak jarriko dizkiote proiektuari. Horretarako, ordea, EAEko aldizkari ofizialean argitaratu behar dute lehendabizi; behin hori gertatuta, 30 laneguneko epea dago alegazioetarako. Bada, horren esperoan da Udala, baina, aurreratu dutenez, txosten tekniko bat aurkeztuko dute, parke eolikoak ingurumenean izango duen inpaktua go-goan izanda. "Guk dakiguna da Katiako deposituan eragina izango dutela lanek. Basalde auzoak hortik edaten du, eta arriskuan ikusten dugu. Katiara doazen urak bete-betean dira Irimokoak, eta horrek auzo oso bat utziko luke urik gabe", adierazi du Olatz Lezeta Antzuolako alkateak.

Capital Energy enpresak asmo du berrehun metro- haize orratzak barne- luzeko bi aerosorgailu jartzea: bata, Meaka inguruan, Antzuolako lurretan; eta bestea, Irimo gainean, Urretxun. Bi puntun artean, berriz, masta bat jarriko dute, haizearen eta haize erroten norabidea kontrolatzeko. Alabaina, Udalak salatu du harago doala proiektua: "Kontua ez da eolikoak ipini edo ez; baizik eta horra iristeko egiten den txikizioa". Izan ere, adierazi dutenez, errepideak egin behar dira proiektua gauzatzeko. Kasu honetan, enpresako arduradunek Udalean aurkeztutako txostenaren arabera, Deskarga eta Trekutz lotzen dituen bidea aprobetxatzea dute xede, baina bost metroko zabalera egokituta; horrez gain, Trekutzetik Irimora beste pista bat egingo lukete, neurri berberekin. "Dena apurtu behar da;



Astelehenean, urriaren 30ean, egin zuten batzar irekia Torresoroan. IÑIGO BARRENA

30 LANEGUN DAUDE ALEGAZIOETARAKO; AZTERTU OSTEAN, JAURLARITZAK DU AZKEN HITZA

gailurreria ere desagertuko litzateke".

Onurak bainoago, ondorioak

Proiektuaren onurak norentzat diren ere kezka da, eta, Udaleko ordezkarien esanetan, herriarentzat, behintzat, ez dira. "Ez gaude ados txikizio horrekin; ondorioak guri gelditzen zaizkigu, baina onurak beste batzuentzat dira. Hor dago kontraesana. Guk erabaki beharko dugu herri bezala hor txikizio hori egitea eta gero herriak hortik energia ateratzea, baina onurak inorentzat izateko, ez dugu bat egiten".

Urretxuarrekin elkarlanean

Proiektuak Antzuolan ez ezik, Urretxun ere badu eragina, eta Lezetak nabarmendu du helburua dela bi udalek batera jardutea. "Pasa den legegintzaldian

mozio bidez onartuta gelditzen alegazioak jarri behar izatekotan, bi udalek batera egitea. Horretan saiatuko gara". Dena den, aitortu du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak duela azken hitza. Hain justu, alegazioetarako epea amaitu ostean, sei hilabeteko epea izango du Jaurlaritzak egoera aztertzeke, baina proiektua onartuz gero, enpresak aurrera egiteko aukera izango luke.

Herritarren taldea

Trekutz parke eolikoari alegazio teknikoak jarriko dizkio, beraz, Udalak, baina, batzar irekiaren ostean, herritarrek ere adierazi dute ez dutela geldi egoteko asmorik. Zutabe sozialari ekiteko erabakia hartu dute batzuek, eta, aldi berean, talde bat sortzekoa. Hala, astelehenean, hilaren 6an, egingo dute lehen batzarra, Olango bigarren pisuko areto nagusian, 17:30ean. Parte hartzaileetako bakoitzak dituen asmoen berri emango du; horrela, eginbeharrak zehaztuko dituzte. 19:00etan, berriz, Udaleko Ingurumen Batzordea izango da, udaletxean.

Gazteen interesak gogoan, bihar irekiko dira gaztetxokoko atak

"Balio hezitzaileak" izango dituzte oinarri ekintzetan, egunerokotasunean gazteei baliagarri zaizkien gaiak

A.R.K. ANTZUOLA

Bihar irekiko dituzte atak Antzuolako gaztetxokoa. DBH 1etik 3rako nerabeek izango dute gerturatzeko aukera, zapatu eta domeketan, 17:00etatik 21:00etara -domeketan izan ezik; orduan, 20:00etan itxiko da-, apirileko lehen asteburura arte. Janire Bassecourt izango da koordinatzailea, baina lantaldea lau kidek osatuko dute, hiru hezitzaile ere arituko baitira lanean.

Bassecourtek azaldu duenez, dagoeneko zehaztuta dituzte azaroan egingo dituzten ekintzetako batzuk, baina gainontzekoak gazteen interesen arabera programatuko dituzte. Horietan, ordea, "balio hezitzaile batzuk" izan nahi dituzte oinarri: "Aisialdian hezteko da gure helburua: herrigintzan oinarritzea, kooperatiboak izatea, feministak eta euskaldunak".

Horrez gain, asmo dute egunerokotasunerako "erabilgarri" zaizkien gaitasunak garatzea ere. "Adibidez, sukaldaritzan oinarritutako tailerrak egingo ditugu, eta baita garbitasunaren garrantzia azpimarratu ere".

Lanerako, "gogotsu"

Bassecourtek lehenengo aldia du koordinatzaile lanetan gaztetxokoa, baina "gogotsu" dago. Lau kide izanda, "taldean" jardungo dutela nabarmendu du. "Urte polita izango da Antzuolako gaztetxokoarentzat; aberatsa, nire iritziz".

Idolazek du gaztetxokoaren gidaritzaren ardura. Bassecourtek azaldu duenez, "herrian eragiten" jarraitzeko asmoa du aisialdi taldeak. "Aisialdi hezitzaile bat eskaintzen segituko dugu; baita herrian dauden aukeretan parte hartzen ere".

Arrolak hitzaldia eta baba jana antolatu ditu mendi astean

Datorren astean ospatuko du Arrola mendi elkarteak mendi astea, eta bi ekintza nagusi antolatu ditu. Batetik, Garazi Abasolo nutrizionista aretxabaletarrak *Nola elikatu mendian* hitzaldia emango du hilaren 9an, eguna, Torresoroan, 18:30ean. Bestetik, mendi irteera eta baba jana egingo dituzte hilaren 11n, zapatua, Trekutzen.

Mendi irteeran eta baba janean parte hartzeko, ordea, antolatzaila jakinarazi dute izena eman behar dela. Bihar izango da horretarako azken eguna, eta arrolamt@gmail.com helbidera bidalitako mezuan adierazi behar da ea mendi irteeran, bazkarian edo bietan eman nahi den izena. Trekutz-Irukurutzetatik-Trekutz izango da ibilbidea, eta 09:00etan izango da irteera. Bazkaria, berriz, Gaztelugain elkarrean egingo da; 15 euro ordaindu behar dira. Jon Mata antzuolarra, Urko Arregi oñatiarra eta Mikel Iturriotz urretxuarra arituko dira bertotan.

'Hausnarrean. Ardiek egin naute artzain' lana aurkeztuko dute

Nekazaritzarekin edo landa-eremuarekin lotuta dauden "pozen, arazoaren eta egoeren" berri emateko, *Hausnarrean. Ardiek egin naute artzain* liburua aurkeztuko du Josebe Blancok martitzen, 18:30ean, Olango bigarren pisuko areto nagusian, Maria Eugenia Irazabal antzuolarra alboan duela. Prosa eta poesia bateratu ditu lanean.

Udala txaranga eta abesbatza sortu nahian dabil

Txaranga eta abesbatza sortzeko, urratsak egiten dabil Udala. Haize edo perkusio instrumenturen bat joz gero, txaranga eman daiteke izena. Bittor Giral izango da irakaslea, eta martitzen izango dira saioak, 18:00etatik 19:00etara. Abesbatzako irakaslea, berriz, Vinaixa Gartzia izango da; egunen, 20:30etik 21:30era.

Zergen eta tasen igoera aho batez onartu dute

2024an, %1,9 igoko dira udal zerga eta tasa nagusienak. Igoera aplikatzeko adostasuna egon da bi talde politikoen artean, eta urteak dira horrelakorik gertatzen ez dela. Udal langileen, alkatearen eta liberatutako zinegotziaren ordainsariak %0,5 igoko dira

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Ondasun higiezin zergak, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergak, eta obren gaineko zergak %1,9 egingo dute gora 2024an. Neurri berean egingo dute gora zaborren tasak, kirol jardueretako tasek zein hilerrikoek. Gainerakoan, salbuespenak salbuespen, ez da igoerarik izango. "EAJrekin negoziatutako ordenantza fiskalak dira", esan du Ibon Unzeta-barrenetxea alkateak. "Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergen, familia ugarien hobaria aplikatuko da. %90eko hobariak izango dira, berriz, milioi bat baino gutxiago fakturatzeko duten tokiko negozioendako, bai instalazio eta obren gaineko zergen, bai irekiera tasan".

Hain zuzen ere, oposizioaren aldeko botoa jaso du Udal Gobernuak egindako ordenantza fiskalen proposamenak. "Inflazio testuingurua eta Udalaren egoera ekonomikoa zein den ikusita, zentzuzkoa iruditzen zaigu %1,9ko igoera orokorra. Hurrengo urtean, gainera, aurreko urtean baino 57.600 euro gehiago helduko dira Foru Funtsetik, eta horrek aukera ematen du herritarrei zergak gehiago ez igotzeko. Eskerrak eman nahi dizkizut, Ibon, ordenantza fis-



Udal osoko bilkura, martitzenean. ANER FERNANDEZ

2024KO ORDENANTZA FISKALAK ELKARLANAREN EMAITZA IZAN DIRELA ESAN DUTE ALDE BIEK

kalak gurekin negoziatzeagatik", esan zuen Iker Lakak.

Aurrera begirako neurriak

Negoziaketak aurrera begirako beste zenbait neurri adostea ere ekarri du. Udalak, esaterako,

egutegi fiskala publikatuko du, tasa eta zerga publikoek zerrenda eguneratuko da, motor hibridoak eta elektrikoak hobari tartekatuak ezartzea aztertuko da, jarduera eta erabileren gaineko ordenantza bat definituko da, eta azterketa bat egingo da hutsik dauden etxebizitzetara aplikatzen zaien %75eko errekaruak hasierako helburua bete ote duen argitzeko. Ludoteka eta gazteleku zerbitzuen doakotasuna posible den aztertu behar-ko litzatekeela ere esan zuen Lakak.

Biharko manifestazioari atxikimendua

Elgetako Udalak bat egin du Euskalgintzaren Kontseiluak zaturako Bilbon antolatutako manifestazioarekin; izan ere, udal ordezkariak aho batez onartu dute UEMAREN mozioa.

Ez da lehen aldian udalbatzak gaia mahai gainean duela. Uztaileko osoko bilkuran ere aho batez onartu zen kezka beretik abiatuta EAJK aurkeztutako beste mozio bat.

Jeltzaleen mozioak Auzitegi Konstituzionalak udalei euskara hutsean aritzea eragozten dien epaia salatzen zuen, eta adierazten zuen euskara dela Elgetako Udalaren laneko eta eguneroko hizkuntza. Euskararen normalizazioaren eta biziberritzearen aldeko apustu irmoa berretsi zuen udalbatzak uztailean. Azken sententzien ostean, UEMAREN mozioa da

urriko osoko bilkuran udalbatzak aho batez onartu duena. Kezka eta egoeraren larritasuna azpimarratzeaz gainera, adierazpenak ohartarazten du sententzia horiek udalerrira euskaldunei eragiten dietela bereziki. Hau da, euskaraz funtzionatzeko neurri gehien hartzen ari direnei. Lege-orube sendoa ezinbestekoa dela azpimarratzearekin batera, mozioak bat egiten du zapatuko manifestazioarekin.



IRATXE BRAVO

Arantzabal 'txikixa' gogoan

Arimen Gauean, Eneko Perez Arantzeta Txikiturri-k detaile berezia izan zuen irail hasieran zendutako osabarekin. Hark beste hainbat lagunekin erabili izandako gaztainak erretzeko trena konpondu, eta martxan jarri zuen. Umeendako gaztainak erre zituen, eta txorizoa ere banatu zuen plazan. Eskolaren gaztaina-erre janean aterako du berriz trena, barikuan.



JOSE ANTONIO OJANGUREN

Erretiratuak, Balmasedan

Elgetako Xalbadorpe erretiratuen elkarteak antolatuta, Elgetako 40 bat lagunek egin zuten egun pasa Enkarterrin aurreko eguaztenean. Bestek beste, La Encartada Fabrika Museoa bisitatu zuten. 1992an itxi zuten ehun-gaiak -txapelak, batez ere- ekoizten zituen fabrika. Enkarterrin bazkaldu zuen taldeak.

Ozkarbi Egunaren bueltako ekintzak, azaroko asteburutan

Hilaren 25erako iragarri dute bazkaria eta zabalik da izen-emaitea. Aurreko asteburuetan, baina, hainbat ekintza egingo dituzte. Etziraiko, domeka, mendi txangoa antolatu dute Intxortara. Hamaiketako ere izango da. Gabonetako loteriarekin lotuta eskaerak egin daitezkeela esan dute, tartean domekan 13:00etatik 14:00etara, elkartean.

OHARRAK

'Gu ere kontalari' saioa
Gaur, 18:30ean, umeak izango dira kontalari liburutegian.

'Energia argitu' tailerra
Energia aurrezten ikasteko saioa, hilaren 8an, udaletxean. Izena eman behar da.

Berbalagunen ekintza
Afari-merienda eta bingoa, hilaren 10ean, Espaloian. Azken egunak izena emateko.



DEBAGOIENEN OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11



Udaletxean egin zuten hiztegiaren aurkezpena, martitzenean. O.E.G.

Zaintzako langileendako euskara hiztegia, kalean

'Esaiozu euskaraz' du izena hiztegiak, eta oñatieraz esaten den bezala idatzita dago, ahozkotasanari lehentasuna emanaz. Egunerokotasunean komunikatzeko erabilgarriak diren esaldiak zein egoera konkretuetan erabiltzeko hitzak datoz bertan

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Zaintzako langileendako euskara hiztegia atera du Udalak. Formatu txikia du; poltsikoan sartzeko modukoa da, erabili behar denean eskura izateko moduan, eta komunikazio esamoldeak zein euren jarduneko egoera konkretuetan erabiltzen dituzten hitzak ditu.

Entzuten den moduan idatzita

Azkoitiko Udalak egindakotik hartu dute ideia, eta, egokitzen eta moldaketa lanetan ibili ondoren, astean aurkeztu dute hiztegi txikia. 44 orrialde ditu, eta 21 ataletan banatuta dago: etxeari lotutako hitzak, kalekoak, gorputz atalak, hilabeteen izenak, zenbakiak, koloreak, komunikatzeko esaldi laburrak... Oñatiko euskararen daude idatzita, belarritik sartzen diren moduan. "Ez dugu trabarik topatu behar eta ez gara puristak izan lan honetan; entzuten ditugun moduan idatzi ditugu esaldiak zein hitzak", azaldu

du udal euskaltegiko zuzendari Roberto Altunak.

Iñaki Olalde Euskara batzordeburuak ere hiztegiaren erabilgarritasunak izan dezakeen garrantzia azpimarratu gura izan du: "Zaintzailea zaintzen du, eta zaindua den herritarrek bere osasunean ere eskertuko du egun onak, adibidez, euskaraz ematea. Nagusiekin erabiltzeko, oñatiarrekin harremana izateko eta ondo artatzeko tresna da euskara".

Langileekin elkarlanean

Euskaltegian zaintza arloan dihardutenei zuzendutako euskara ikastaroak egin dira azken urteetan, eta horietan aritu diren hainbat ikaslek horrelako

UDAL WEBGUNEAN KONTSULTA DAITEKE ETA DURANGOKO AZOKAN ERE EGONGO DA SALGAI

material baten beharra zutela ikusita hasi ziren hiztegitxoak lantzen. Elkarlanean, eurekin batera jaso dituzte hiztegiak datozen esaldiak, egoerak eta hitzak. "Oinarrizko ezagutza denak daude. Ez da lan hutsala izan; garrantzi handia du material honek. Lan tresna moduan erabiltzeko da, eta praktikatuaz eta erabiliaz hartuko du aurrerako bidea", zioen Altunak martitzenean egindako aurkezpenean.

Herritarren eskura dago

Mila ale atera dituzte eta zaintza munduan lanean ari direnen artean banatuko dituzte, San Martin egoitzaren eta Elkarzabal elkartearen eskutik, adibidez, eta euskaltegian ikas material moduan erabiliko dute zaintza alorrean lana egiten dutenen eskoletan. Herritarrek ere aukera izango dute esku artean izateko. Online kontsulta daiteke udal webgunean eta Durangoko Azokan ere salgai egongo da Badiharduguren postuan.

Udal tasek eta zergek %4ko igoera orokorra izango dute

EH Bilduren botoekin eta EAJren abstentzioarekin onartu da, proposamen berriekin batera

O.E.G. OÑATI

2024ko udal zergek eta tasek %4ko igoera orokorra izango dute Oñatin, urriko ohiko osoko bilkuran onartu zen moduan. Udal Gobernuan dagoen EH Bilduk alde bozkatu zuen; abstentzioa, oposizioan dagoen EAJk.

Ogasuneko batzordeburu Xabier Igartuak azaldu zuenez, lurraldearen egoera ekonomikoa aztertuta, KPIak %3,6ko igoera izan du azken urtean, eta Foru Funtsetik etor daitekeenarekin, azken bi urteetako KPI igoeren batura baino puntu bat gutxiago. Gogoratu zuen iaz %10eko ezohiko igoera izan zuela KPIak, eta udal zerga eta tasak %4 garestitu zirela. Igartuak azaldu zuenez, 2024 eta hurrengo urteetan ere kalitatezko zerbitzu publikoak ematen jarraitzea da Udal Gobernuaren asmoa bate-tik, eta bestetik, egoera zaurgarrian dauden eta behar handie-

na duten herritarrei zein herriko hainbat elkarteri dirulaguntzak ematen jarraitzea.

Proposamen berriak

Udal Gobernuak pozik zegoen onartutakoarekin, eta oposizioa ere konforme. Hutsik dauden etxebizitzetako erretegia kentzea zen EAJk egindako proposamenetako bat, "ez duelako helburua lortu, hau da, alokairuak gehitzea", baina EH Bildu eustearen aldekoa izan da: "Etxebizitzaren arazoa orokorra da, eta tasa horretatik jasotako diruarekin emantzipazio politikak bultzatzen ditugu, jabeen zein alokairuan joan gura dutenei lagunduz".

Onartutako hobekuntza proposamenen artean daude: CO2 isurketari lotutako tasak, kulturakoak –garbiketa kasu–, eta lurpeko aparkalekuetan gaez aparkatzeko abonua luzatzea.



Urriaren 26an egindako osoko bilkura. O.E.

Aurrez telefonoz deituta har daiteke ordua odola emateko

Gaur, egubakoitza, egingo dute azaroko odol ateratzea, MUko enpresagintza fakultatean, 16:30etik aurrera. Aurrez hartu behar da ordua odola emateko; Donostiatik mezua jasotzen dutenek, gonbidapena jaso ez dutenek edo lehen aldiz eman gura dutenek 08:30etik 13:30era bitartean deitu behar dute gaur zenbaki honetara: 943 00 78 84.

Palestinako egoerari buruzko hitzaldia dago martitzenean

Zer ari da gertatzen Palestinan? galderari erantzungo diote datorren astean egingo duten hitzaldian. Gabriel Ezkurdia –GeopolitikaZ ikerketa taldeko analista eta EHUko nazioarteko ikerlaria– izango da hizlaria. Hitzaldia martitzenean izango da, 18:30ean, Santa Anan. Gaia-aren inguruko ekimen gehiago ere egongo dira aurrerago.

Berriz antolatu dute mendi hamabostaldia

Azken bizpahiru urtetan ez da egin, baina bueltan da mendi hamabostaldia Aloña Mendiko Mendi Sailaren eskutik. Jordi Pons Sanjines, Silvia Trigueros eta Mendi Film jaialdiko ordezkariak datoz; Oñatin egindako ikus-entzunezko bat ere emango dute

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Pozik daude Aloña Mendiko Mendi Saileko kideak aurten hain kuttuna zuten ekitaldia berriz antolatu ahal izan dutelako: mendi hamabostaldia. "Bizpahiru urtetan ezin izan dugu egin, baina aurten laguntza berezia izan dugu; gehiago izan gara, eta posible izan da.

Oso pozik gaude, bai. Herritarren aldetik ere erantzun ona izan du beti mendi hamabostaldia, eta aurten ere saiatu gara egitarau txukun bat antolatzen", dio Mendi Saileko Mikel Oterok.

Gonbidatu ezagunak

Jordi Pons Sanjines alpinista kataluniar historikoa eta Silvia

Trigueros dira azaroan Oñatira etorriko diren bi gonbidatu. Film emanaldiak ere egongo dira. Mendi Film jaialdikoak batzuk, baina baita bertakoak ere. Esaterako, Aloña Mendiko espeleologia taldeak egindako *Zuloan zu?* ikus-entzunezkoa. Arantzazuko leize batean izandako azken esplorazioak eta

ustekabeak kontatzen dituzte lan horretan.

Julen Axperen argazkiak

Ohiko osagai denak ditu aurten mendi hamabostaldiko egitarauak. Argazki lehiaketa da falta dena. Horren ordez, baina, argazki erakusketa antolatu dute, eta ezagunak diren bi gairen bueltako argazkiak dira ikusgai egongo direnak: natura batetik, eta gizakia eta natura, bestetik. Julen Axpe aramaiorren argazki erakusketa izango da, hain zuzen ere; 40 argazki egongo dira. "Ez naiz argazkilari profesionala eta oso pozik nago nire afizio hau hain baloratua dela ikusita. Oñatira eramango ditudan argazkietan mendiak agertuko dira, noski, hangoak eta hemengoak. Badira inguruko mendietakoak, Piriñioetakoak, Alpeetakoak, Islandiara edo Norvegiara egindako bidaietan ateratakoak...".


Federatu kanpaina

Datorren urterako federatu kanpaina ere, bestalde, azaroan egingo du Mendi Sailak. Hilaren 8an, 14an eta 16an, Aloña Mendiko bulegoan egongo dira saileko ordezkariak federatuen altak eta bajak tramitatzen, 18:30etik 20:00etara. Postaz mezu bidalita ere egin daitezke aldaketak. Helbidea da: alona-mendi.mendi@gmail.com.

Azkenik, hileko mendi irteera 19an izango da, Galdamesera.



Norvegiar ateratako argazkia, Lyngen penintsulan, Russelvfjellet mendia igotzen. JULEN AXPE



NIRE USTEZ

XABIER IGARTUA

"Eguzkia itzaldu denean argitu da Gaza"

Horrela dio Zopilotes taldearen abesti bateko letrak.

2013koa da diskoa, baina gaur egun Israel Palestinan egiten ari den sarraskia ongi azalduta dago tamalez. "Genozidioa dohai, ankerkeriarako gai, guraso, seme, alaba, anai, denak ote etsai".

Hamar urte pasata, munduak hobera egin duenik ezin esan. Dirua duenak boterea dauka, eta boteredunak nahi duena egiten du, eta bitartean "Europa mutua".

Herritarrak irten gara kalera, baina Europar estatuek Israel eta AEBen menpeko jarraitzen dute, Errusiari ezarritako embargo eta debekuen bidea sionistei ezin aplikatu antza.

Izango du zer esanik armagintza sektoreak. Gertu ditugu ekoizpen zentroak, gerra hauekin aberasten ari direnak, eta bitartean "misil eta bonba jasa". Armagintza ere ekonomia omen. Ekonomiak egunerokoan laguntzen digu, baina edozein ekonomiak ez digu balio. Ekonomia soziala indartu eta bizitzak erdigunean jarriz, ekonomia kapitalista mugatu. Urtean behin soilik izan dadin Gaba Baltza. Gainontzean, "hiltzea denbora pasa" izango da, "tiranoaren jolasa".

Hitzaldi zikloa egingo dute gai moduan zaintza hartuta

Zaintzaren gaia ardatz hartuta, hitzaldi ziklo bat antolatu du Udaleko Berdintasun Sailak datozen asteetarako. Eltzian izango dira hiru hitzaldiak, hirugarren solairuko gelan, eta herritar ororentzat irekiak izango dira. Astelehenean izango da lehen hitzaldia, 18:00etan, eta ekonomia feministaz arituko dira Emagineko Miren Aranguerenekin. Zahartzarora eta etxeko langileen eskubideak izango dira hurrengo hitzaldietan landuko dituzten gaiak. Hitzaldietara joateko zaintza edo beste zerbitzu bat behar izanez gero, Berdintasun Sailarekin jar daiteke herritarra harremanetan: berdintasuna@onati.eus.

Etxean energia nola aurreztu erakutsiko dute eguaztenean

Energia modu eraginkorrean erabiliz eta erosotasunik galdu gabe energia eta dirua aurrezteko gomendioak erakutsiko dituzte datorren astean, hilaren 8an, 18:30ean, zinema aretoan egingo den tailerrean. Norberak bere etxean ezarri ditzakeen eraginkortasun neurrietarako beharrezko materialak erakutsiko dituzte, eta energia aurrezteko balio duten ohitura aldaketak azalduko.

Doan da tailerra. Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak antolatu du, Oñatiko Udalarekin batera, Energia Argitu programaren barruan, baina izena eman behar da: argitu@gipuzkoa.eus.

Egitarauan datozen ekitaldiak

Azaroak 7

19:30 'Alpinismo sin ficción' ikus-entzunezkoa, Jordi Pons Sanjines-ena. Bera dator.

Azaroak 9

20:00 Mendi tour. Lau film botako dituzte: 'From shade to light', 'El Retorno', 'A Baffin Vacation' eta 'Adrenaline sucks'. Sarrera: bost euro.

Azaroak 11

09:00 Arrikutzera irteera. Ibilbide tekniko samarra da, Jaturabeko aparkalekutik irteera.

Azaroak 15

19:30 'Tor' filma eta solasaldia Silvia Triguerosekin.

Azaroak 17

19:30 Oñatin egindako espeleologia pelikula: 'Zuloan zu?'.

Oharra: Azaroaren 6tik 19ra, Julen Axperen argazki erakusketa, kultura etxean.

OHARRAK

Liburu aurkezpena

Jon Urzelaireren *Su festak*. *Euskal musika jaialdiak XXI. mendean* liburua aurkeztuko dute gaur, egubakoitza, gaztetxean, 19:00etan, Burrunda Faktoriak antolatuta.

Film laburren rallya

Zapatuan egingo da film laburren aurtenko rallya. 21:30ean izango da lanak ikusteko emanaldia, Santa Anan edo streaming bidez.

Gaztaina erreak

Eltziako topagunean, gaztaina erre jana –hiru euro– eta bertso saio musikatua egongo dira eguaztenean, azaroak 8, 19:30ean.



Hiru lagun, iaz, Domingo Iralako zuzenean, helmugan. GOIENA

Adinez ia nagusi, eta ilusio berrituekin dator

ATLETISMOA Zapatuan egingo dute, 16:30ean hasita, Antxintxika krosaren 17. edizioa. Klubeko zuzendaritza berrituak errelebo aldaketa ekarri du taldera, eta antolatzaile gazteak ilusio berrituekin dabilta; hala, parte-hartze ona espero dute lasterketan

Xabier Urzelai BERGARA

Aste barruko parte-hartze datuak eskuan izanda, bihar, zapatua, kuadrilla polita batuko da Sorluzeko irteera puntuan, Antxintxika krosaren 17. edizioa egiteko gertu (16:30ean, gurpildun aulkikoak, 16:45ean, patinatzaileak, 17:00etan, korrikalariak). "Aste barruan, 330 lagunek emana zuten izena, eta egia da azken uanean jende asko animatzen dela izena ematera; horrenbestez, iaz moduan, aurten ere 400 korrikalari inguru izango dira irteeran", adierazi dio GOIENARI antolatzaile lanetan dabilen Eneritz Urrutiak. Kontuan hartu gaur, egubakoitza, gauerdira arte lasterketan izena emateko aukera egongo dela, *Kirolprobak.com*-en (16 euro). Kontuan hartu lasterketa egunean ezingo dela izenik eman.

Ibilbidea, berdin

Lasterketak ez du aldaketarik izango, Sorluzen hasi eta atletek 10 kilometroko ibilbidea

izango dute aurretik, Bergarara arte. "Ikusten dugu jendea ilusioz etortzen dela, eta gu ere halaxe gaude. Antxintxika berez ez da atletismo talde bat, triatloi talde bat gara, baina kros honek talde moduan bizirik gaudela erakusten digu; garrantzitsua da guretako", dio Urrutiak. "Bada, Antxintxika taldeko zuzendaritza berritzea tokatzen zen eta errelebo aldaketa egon da, eta halakoetan normala den moduan, talde berria ilusio handiz dabil. Zapatua begira, saiatuko gara korrikalariak mimatzen".

Sail egokitua, indarrez

Horrekin batera, Urrutiak nabarmendu du Antxintxikako kirol egokituko sailak hartu

16:30EAN HASIKO DIRA GURPILDUN AULKIKOAK; 16:45EAN PATINATZAILEAK; 17:00ETAN ATLETAK

duen indarra. "Aniztasun handiagoa ematen dio taldeari, eta, kirol egokituko kategoria ere egongoenez, lasterketari berari ere beste izaera bat ematen dio, inklusiboago bilakatzen du krosa. Eta ez bakarrik gurpildun aulkietan edo handbikean parte hartzen dutenengatik, patinatzaileen artean ere badaude gaitasun bereziak dituzten kirolariak, eta horiek ere irteera puntuan egongo dira". Eta aurten ere lagun asko izango dira urritasun funtzionala duten neska-mutikoen aulkietatik bultzatzaile lasterketan esku hartzen.

David Garcia, irteeran

Iazko irabazleei dagokienez, lasterketa hainbatetan irabazi duen David Garcia durangarra iazko txapela defendatzera etorriko da. Emakumezkoetan Aina Urrutia izan zen iaz onena, baina Aretxabaletako Skyrunner zirkuituan buru-belarri ibili da eta atsedean hartuko du.

Hamar onenen artean amaitu du Urrutiak Skyrunner zirkuitua


MENDI LASTERKETAK Asteburuan egin duten Limone Extreme lasterketan 14.a izan da aretxabaletarra

X.U. ARETXABALETA

Joan den asteburuan Italian jokatutako Limone Extreme lasterketarekin borobildu du Aina Urrutiak denboraldia, eta Skyrunning zirkuituko lasterketan batutako puntuak esker sailkapen orokorrean 9. postuan amaituko du urtea.

Urrutiak pozik egoteko moduko denboraldia egin du, sailkapen orokorrean hamar onenen artean egotearekin batera, urtean zehar podiumera igo delako Madeira, Grignen eta Louzanan.

Bada, joan den astean, Aretxabaletako 14.a izan zen nazioarteko puntako lasterkariak batu zituen lasterketan, Limoneko proba Skymasters proba zen-eta, alegia, final handia. Hala, Euskal Selektzioak korrikalari kuadrilla polita eraman zuen lasterketara, eta, aretxabaletarrarekin batera, Aitor Ajuria



Urrutiak, azken lasterketan. GUARESTI

ere lasterketan izan zen, nahiz eta katarroa tarteko gatzagarrak gogotik sufritu behar izan zuen lasterketa amaitzeko (153.a izan zen). Urrutiarekin batera, Osak eta Kortazarrek ere bikain amaitu dute urtea; hirurak nabarmendu dira nazioartean.

ERRUGBIA Pirolitikak Gijonera doaz bihar, Mater Seriesetara

Arrasateko amen taldeak, Pirolitikek, hitzordu garrantzitsua izango dute asteburuan Gijonen, Mater Series barruan egiten duten hirugarren edizioan izango dira eta. Txapelketan 35 urtetik gorako 16 talde izango dira; guztira, 350 jokalarik espero dituzte. Txapelketa Las Mesetako kirol instalazioetan jokatuko dute.



Pirolitikak lehiatzen, artxibo irudian. GOIENA

TRIALSINA Txapelketa antolatu du Oztok domekarako, hilak 5

Aretxabaletako trialsin gunean egingo dute domeka goizean Oztok antolatutako trialsin Opena. Penintsula osotik etorritako pilotuak espero dituzte, gehienak Zaragoza, Madril eta Bartzelonakoak, eta tartean izango dira munduko txapelduak, eta baita mundialetan esku hartzen ibili direnak ere. 10:00etan hasiko da Opena.



Pilotu gaztea Aretxabaletan. GOIENA

Ahuntzen hirugarrena ibilbide berriaz dator

MENDI LASTERKETAK Martxoaren 16an egingo dute Elgetan Ahuntzen eta Antxumeen lasterketaren hirugarren edizioa, eta eguaztenean zabaldu zuten izen-emate epea: "Goiz ibili behar izaten dugu dena lotuta izateko", diote antolatzaileek

X.U. ARRASATE

Lerrook irakurtzen dituzueneko, 2024ko Ahuntzen lasterketarako kuadrilla politak izango du izena emanda dagoeneko –eguztenean, azaroaren lein, zabaldu zuten izen-ematea *Herrikrosa.eus* atarian-. Hala, In-txortako Ahuntzak Trail lasterketako antolatzaileak hasita daude datorren urtekora begira lanean. "Lasterketako kartela ateratzea izaten da lehenengo eginbeharretako bat, eta horretarako ondoan zein babesle izan behar duzun jakin behar dugu; horrenbestez, bai, dezente aurrerapenarekin ibili behar izaten dugu", adierazi dio GOIENAri Eleder Lozanok.



Korrikalariak, iaz. GOIENA

Bost kilometro luzeagoa

Datorren urteko lasterketara begira, Ahuntzen lasterketak bost kilometro gehiago izango ditu. "Esango nuke hori dela aldaketa nabarmenena. Egoarbitzako tontorra sartzea eraba-

ki dugu, Elgeta inguruko mendirik ederrena da, eta horrek lasterketa apur bat luzatuko du [21 kilometro eta 1.000 metro-tako desnibela]. Gainontzean, ibilbidea beste urteetako berbera da".

Nahi eta nahiez, aldaketa horrek lasterketa gogortu egingo du apur bat, baina Iratxe Alonsoren esanetan egingarria da. "Egia da ez dela gauza bera lasterketa bat martxoan ala maiatzean antolatzea, eta gurea denboraldiaren hasieran dagoela, baina garbi daukagu gurera etortzen diren korrikalariak hori egiteko kapaz direla".

Babes handia herrian

Lozano eta Alonso bat datoz esaterakoan Ahuntzen lasterketak babes polita duela. "Herrian, portaletik irtetearekin batera mendian zaude, eta horrekin batera, herri txikia izatean, herritarrak beti egon izan dira gertu lasterketa egunean laguntzeko. Hirugarren edizioa antolatzeko lanean hasita geundela esan genuenean lagun asko etorri zitzaizkigun oraingoan ere laguntzeko gertu daudela esaten, eta hori asko eskertzen dugu".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOR. ERREGIONALA

UDA-Zarautz

Dom. 16:30. Ibarra.

Bergara-Zumaia

Dom. 17:00. Agorrosi

OHOR. ERREGIO. EMAK.

Debagoiena-Zumaia

Zap. 10:00. Azkoagain.

GAZTEAK, MAILA NAZ.

Barakaldo-Bergara

Dom. 11:30. Barakaldo.

GORENGO MAILA

UDA-Zumaia

Zap. 15:30. Ibarra.

Urki-Aloña Mendi

Zap. 17:45. Unbe.

Antzuola-Anaitasuna

Zap. 16:00. Eztala.

Bergara-Mondra

Zap. 16:30. Agorrosin.

OHOREZKO GAZTEAK

Aloña Mendi-Ordizia

Zap. 16:30. Azkoagain.

Mondra-Urola

Zap. 16:30. Mojategi

LEHENENGO GAZTEAK

Zarautz-Mondra C

Dom. 17:30. Asti Txiki.

Urola-Aloña Mendi B

Dom. 12:00. Argixao.

Mondra B-Ordizia

Dom. 13:00. Mojategi.

Ikasberri-Bergara

Dom. 15:30. Azpeitia.

EMAKUMEZKO KADET.

Goierri-Aloña Mendi

Zap. 12:00. Lazkao.

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Gernika-Mondrate

Zap. 17:00. Santanape.

Antiguoko-Eskoriatza

Dom. 16:30. Pio Baroja.

GIPUZKOAKO TXAP.

Eguzki-Coinbroker

Gaur. 20:50. Lasarte.

GIPUZKOAKO 2. MAILA

Altza-Eskoriatza

Dom. 12:30. Donostia.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAP.

Saieko-Fagor

Professional

Zap. 19:30. Donostia.

GIZ. GIPUZ. SENIOR.

Mugarri Ingou-

Elgoibar

Zap. 18:30. Iturripe.

Eibar-Soraluce BKE.

Dom. 11:45. Ipurua.

EMAK. GIP. SENIOR.

Aloña Mendi-Pulpo

Zap. 16:00. Oñati.

SASKIBALOIA

EBA

MU-Cantbasket

Dom. 18:30. Iturripe.

EUSKAD. LEHEN EMAK.

San Ignacio-MU

Zap. 20:00. Iruñea.

EUSKAD. LEHEN GIZON.

MU-Unib. Deusto

Zap. 16:00. Iturripe.

EUSKADI. BIG. GIZON

Soraluce BKE-Easo

Dom. 18:00.

Labegaraieta.

Biotz Aloña-Erroibide

Zap. 18:00. Zubikoa.

GIPUZ. EMAK. SENIOR.

MU-Vivanta

Dom. 16:15. Iturripe.

ERRUGBIA

SENIOR GIZONEZKOAK

Kanpazar ART-

Atlético

Zap. 16:30. Mojategi.

SENIOR EMAKUMEZK.

AGT ART-Sarako Izar.

Dom. 12:30. Mojategi.

ERRUGBI INKLUSIBOA

Entrenamendu saioa.

Domekan, 10:30ean,

Mojategin.

ATLETISMOA

ANTXINTXIKIA KROSA

Zap. 16:30. Gurrildun

aulkikoan irteera. 16:45.

Patinatzaileen irteera.

17:00. Korrikalarien

irteera.

TRIALSINA

OZTOPO OPENA

Dom. 10:00.

Arexabaleta.

Realaren eta Sevillaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA
 Real-Sevilla norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek:
 Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.
 Partida azaroaren 26an, 16:15ean, izango da.
 Parte hartzeko azken eguna: azaroak 19.

Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzu!

goiena" kide

Okm:
batzen gaituen distantzia

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!

1.
Aplikazioa deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!

"Liburu gordina, baina gustura irakurtzekoa da"

JOHN ANDUEZA IDAZLEA

Hamargarren liburua idatzi du Elgetan bizi den Arrasateko idazleak; 'Para bellum' izenburua du eleberriak, eta Elkar argitaletxearen Traola bilduman argitaratu du

Aitziber Aranburuzabala Juldain
ELGETA

Elgetan kokatuta dago, eta bi familiatako belaunaldi ezberdinetako kideak dira protagonistak Euskal Herrian ehun urtetan izan diren gertakariak batzen dituen fikziozko kontakizunean. **Hamargarren liburua duzu; pozik?** Oso pozik; 2012an idatzi nuen lehenengoa eta nekez aurreikusen nuen egin dudana ibilbidea. **Ze sentazio dituzu berriarekin?** Sentimendu askoren nahasketa dut; ordu asko eta ilusio handia daude liburuaren atzean, eta egia bihurtu dela ikusita, poza eta harrotasuna, baina urduritasun apur bat ere bai, jendeak nola hartuko duen.

Si vis pacem para bellum esaldi ezagunetik abiatzen da istorioa?

Bakea nahi baduzu prestatu zaitez gudarako esaldia da abiapuntua. Elgetako bi familia urteetan elkarren kontra ibiliko dira borrokan, lubakiaren alde batean batzuk, eta beste aldean, besteak. Euskal Herrian urte asko pasatu ditugun gerra giroaren erakusle.

Dena dela, euskal historiako pasarte asko jasotzen badituzu ere, argi utzi gura duzu fikzioa dela.

Bai; ez da gertatutakoei buruzko saiakera bat, oinarrian Euskal Herriko 100 urtetako pasar-



John Andueza, *Para bellum* liburuarekin, atzean Elgetan duela. MARIAN PORCEL

"HEMENGO AZKEN 100 URTEETAKO GERTAKARIAK BATUTA, FIKZIOZKO ISTORIO BAT IDATZI DUT"

te asko badira ere. Asmatutako bi familiaren arteko tirabira eternoaren kontakizuna da.

Zelakoak dira pertsonaiak?

1922an abiatzen da, eta elkarren lagun diren Elgetako Txaparte-gi eta Otalora baserrietako fa-

miliak dira protagonistak. 1936an frankisten altxamendua izan zenean, baina, elkarren etsai bihurtuko dira, eta hala izango dira hurrengo belaunaldietan. **Intxortan 1937an gertatutako guda pasarteak ekarri duzu; bestelako zer gehiago, adibidez?**

Sarraski horretatik abiatuta, gerraosteko eta ondoren sortu ziren biolentzia kasuak, ETaren jarduna eta Estatu terrorismoa... Gure eskualdean ere une oso latzak eta istorio gogorak bizi izan ditugu, kontatu beharrekoak, nire ustez.

Zure aurreko liburuekin alderatuz, barre gutxi egingo dugu.

Hasieratik oso argi izan nuen liburu honek diziplina handia eskatzen zuela idazlearen partetik; izan ere, nahiz eta fikzioa izan, ez nuen inor mintzerik nahi, eta uste dut liburu hasi eta bukatu artean izpiritu horrekin idatzita dagoela. Liburu gordina da, baina, fikzioa den neurrian, gustura irakurtzekoa dela esango nuke; neurri batean, urte askotan hemen bizi izan dugunaren kronika ere bada.

Eleberri batek eskatzen dituen osagaiak alboratu barik, ezta?

Kontsumitzaile moduan, intriga osagaia izan behar dute, niretzako derrigorrez, liburuek edo ikus-entzunezkoek; beraz, nire lanetan beti dut presente hori, eta oraingoan ere istorioaren bukaeraraino saiatu naiz intriga hori mantentzen.

Irene Izquierdoren irudia ekarri duzu liburuaren azalera.

Liburuaren begietatik sartzen da lehenengo; beraz, ondo zaindu behar da hori. 100 urteko istorioa barne hartuta, ez zen samurra momentua aukeratzea. Ilustratzaileak proposamen bat bidali zidan, non bi mutil agertzen ziren, eta oso aproposa iruditu zitzaidan; izan ere, liburuaren irakurtzen ari zarela jakiten da zein diren bi pertsonaia horiek. **Eskuragarri dago liburua?**

Bai, esaterako, Arrasateko eta Bergarako Elkar dendetan dago eskuragarri, eta laster izango da liburu denda gehiagotan, orain ari gara-eta zabalpena egiten.

Zelan doaz promozio lanak?

Hasi berritan, baina zurrumbilona sartuta dagoeneko; oso eskertuta nago, eta pozik ari naiz hango eta hemengo hedabideetan askotariko elkarrizketak egiten.

Eskozap-ek gonbidatuta, Leo Bassi, Arrasaten

Yo Mussolini lana eskainiko du azaroaren 11n, Amaia antzokian, 19:30ean; sarrerrak, 18 eurotan

A. Aranburuzabala ARRASATE

2020ko martxoaren 22an zen Leo Bassi, azkenekoz, Arrasatera etortzekoa, baina pandemiak behartuta atzeratu egin behar izan zuten azken orduan; bada, datorren astean izango da, Chiapasen aldeko Eskoriatzako elkartearen eskutik berriz ere, aktore eta komiko italiarra Amaia antzokian. "Bufoi moduan definitzen du bere burua. Aspalditik ezagutzen dugu elkar eta aurrez ere gonbidatu izan dugu Debagoienara. Oraingoan, *Yo Mussolini* antzezlan zirikatzaile eta dibertigarria eskainiko du, bere estiloari fidel; berak sortu eta bakarka antzeztutakoa. Ezaugarri dituen txantxak eta probokazioa ikuskizun honetan manipulazio politikoari buruzko gogoeta sakonekin nahastuko ditu, barrea eta pentsamendu positiboa faxismoaren aurkako antidoto moduan proposatzeko gogoz", azaldu dute Eskozap elkartearen kideek.

Hamazortzi eurotan daude dagoeneko *Arrasate.eus* atarian eta Amaia antzokiko leihatilan sarrerrak eskuragarri. Amaia antzokian egin beharreko konponketek eraginda, edukiera mugatua izango du ikuskizun horrek ere.

Literatura emanaldi *musikatua*

Joseba Sarrionandia
eta
Joxe Mari Iturralde
idazleak

Anne Etchegoyen
abeslaria

Iñar Sastre
musikaria

Olatz Prat
musikari eta kazetaria

Azaroak 3, ostirala, 19:30, Arrasateko JAMEn

Sarrerrak eskuratzeko:
<https://amaiasarrasate.janto.es/>
Sarrerrak 10 €

Antolatzaileak:

goiena

Babesleak:



Flamenco Etxea 2, urtarrilean Amaia antzokian eskaini zuten ekitaldian. IMANOL SORIANO

"Berritasunez" josita 45. Musikegunak

45. Musikegunak egitasmoa antolatu du Oñatiko Udalak. Hiru asteburutan zehar, artista eta ikuskizun desberdinak eskainiko dira; tartean, Gorka Hermosa soinu-jolearen eta Jose Luis Montonen 'Flamenco Etxea 2' emanaldia

Miren Arana Pagaldai OÑATI

45 urte daramatza Oñatiko Udalak Musikegunak egitasmoa antolatzen. Urtez urte aldatzen joan den arren, musika eskaintza mota edo ildo bati erantzuten jarraitzeak "egonkor egin du egitasmoa", azaldu du Iñaki Olalde, Oñatiko kultur zinegotziak: "Musika klasikoaren eskaintza zabaltzeko egin bazen ere, gaur egun, ohikoak ez diren musika estiloei tokia eskaintzen zaie, betiere musika klasikoaren presentzia mantenduz".

Urtero eskaintza aldatzen den bezala, artistak ere aldatzen dira, baina herritarrengandik jasotzen duten "fideltasuna" mantentzen da: "urtero Musike-

gunen zain egoten diren entzu-leak daude, eta, gainera, kontzertuetara hurbiltzen diren herritar berriek errepikatzeko ohitura izaten dute".

Iñaki Olalde azaldu duenez, 45. Musikegunak "berritasunez" josita dator: oso "ezberdinak" diren emanaldiak eskainiko dira; igande honetan, *Flamenco etxea 2* emanaldia izango da; hilaren 12an, Andoni Egaña eta Andoni Salamero izango dira, eta Furrundarena, musikari moduan; eta 19an, ia 60 lagunez osaturiko orkestra, Aequus Ensemble.

Barne borroka

Euskal musika eta flamenkoa uztartzen dituen emanaldia es-

kainiko dute Gorka Hermosa soinu-joleak eta Jose Luis Monton gitarrak. 16 urte dihardute batera oholutzan, eta Oñatiko Santa Ana antzokian izango dira domekan. Gorka Hermosak azaldu duenez, gurasoak Extremadurakoak izanda, Euskal Herrira nola etorri ziren azaltzen saiatzen da; "barne borroka bat azalerarazten saiatzen naiz musikarekin, ni euskalduna naiz, eta bestetik nire familia hegoaldetik dator".

Soinu-jolearen hitzetan, 16 urte pasa arren, "opari" bat da Jose Luis Montonen mailako gitarrak jole batekin oholutzan gainera igotzea, eta "plazer hutsa" emanaldia Oñatin eskaintzea.

Aitor Arregi eta Jon Garaño 'Marco' errodatzen hasiak dira

Zuzendari oñatiarrak Jon Garañorekin batera zuzendutako 'Marco' filmaren errodatze lanak hasi dira

Miren Arana Pagaldai OÑATI

Loreak (2014), *Handia* (2017) eta *La trinchera infinita* (2019) filmak zuzendu ostean, Aitor Arregi eta Jon Garaño zuzendarien lan berriaren grabaketekin hasi dira, *Marco* filmarekin, hain

zuzen. Urteetan zehar, mundu osoari nazien kontzentrazio-esparru batean preso egon zela sinetsarazteko gai izan zen gizon baten bizitza kontatuko du filmak, hain zuzen Enriq Marcoren historia.

Benetako gertaeretan oinarritutako thriller dramatikoaren gidoian aritu dira, bi zuzendariekin batera, Jorge Gil eta Jose Mari Goenaga gidolariak.

Eduard Fernandez, hiru Goya sariren irabazlea, jarriko da Enriq Marcoren azalean, eta Nathalie Poza aktoreak hartuko du haren emazte Laura interpretatzeko ardura. Filmaketa lanak lau lurralde ezberdinetan egingo dira: Euskal Herrian, Katalunian, Madrilan eta Alemanian, hain zuzen.

Goienakideen txokoa

URRIKO IRABAZLEAK

INNJOO SUPERB TABLETA
Joxe Mari Ugarte Ayastury (Oñati)

HARREMAN DENDA KO OTARREA
Fernando Contreras Munilla (Bergara)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK
Iñaki Zubizarreta (Eskoriatza)
Edurne Iñarra Bastardo (Bergara)
Izaskun Gorosmendi Aiausti (Oñati)

MAIALDE JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Itxaro Ayesa Azcoaga (Arrasate)

ETXE AUNDI JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Neida Gabilondo Isasisasmendi (Aretxabaleta)

GOXO GOXUA GOZOTEGIAREN TARTA
Jazarpen Garai Txintxurreta (Arrasate)

'MIGRATZAILEAK' DANTZALDIRAKO SARRERAK
Rosa Mondragon Elorza (Aramaio)

REALAREN ETA MALLORCAREN ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK
Jasone Uribesalgo Zugasti (Aretxabaleta)

REALAREN ETA BARTZELONAREN ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK
Nerea Sanzberro Lejarreta (Arrasate)

SARIAK JASOTZEKO:

Anirikrutzeko sarrerak. Goiena Kiubeko txokora eskaintza bina sarrera izango dituzten Anirikrutzeko txokordetan, Sareak hiru hilabeteko egutegia izango dute. **ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK.** Astelehenetik, OÑATI: 9:43 05 20:00. Oñatitik: astelehenetik igandera 10:00 - 17:00 (puzte defektu hitzordue egiteko) Herrerian denakiko otarrea. **Otarrea** jasotzeko, ja zuzendari, bazkide txokoratu, Herrerian denakiko Otarrea. **Osoki** hipermerkaturan duen denak. **Tableta**, sator GOIENAren egutegia. Sare jasotzeko, **BAZKIDAREN TXARTELA** eskutik edota **BAZKIDE ZENBAKIA** adizena eman behar da. GOIENA Otarrea Lizenziaduna SL. Arrasate: 943 25 05 05. Oñatitik: astelehenetik egutegia: 09:00 - 18:00. Egubakoitzean 08:00 - 14:00

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Eskozap elkarteari esker

"Yo, Musolini" antzezlanerako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amala Antzokia | Azaroak 11 | 19:30

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus | WhatsApp: GOIENAKIDE "musolini"
[bazkidoaren zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena IFD 15/1997 legearen arabera jakinarazteko eraberriz datu pertsonak Goiena Komunikazio, Informatika eta Zuzendaritza Berriarekin partekatuko dira. Datu pertsonak berriro berrabiarazteko irabazlearen iradokizunak behar izan behar dira. Datu pertsonak berriro berrabiarazteko irabazlearen iradokizunak behar izan behar dira. Irabazlearen iradokizunak behar izan behar dira. Irabazlearen iradokizunak behar izan behar dira. Irabazlearen iradokizunak behar izan behar dira. Irabazlearen iradokizunak behar izan behar dira. Irabazlearen iradokizunak behar izan behar dira.

Irabazi bi lagunendako otordua

MAUXKA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: azaroak 7.

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 "Goiena app"-a / zozketa atalean.

📍 GOIENAKIDE | Jatetxea
[bazkidoaren zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...

GOIENAKIDE KUOTA: 15 €
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 3 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30

Zapatua, 4 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15

Domeka, 5 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15

Astelehena, 6 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26

Martitzena, 7 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39

Eguaztena, 8 SANCHEZ ALVAREZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Eguena, 9 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 3 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Zapatua, 4 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Domeka, 5 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Astelehena, 6 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05

Martitzena, 7 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

Eguaztena, 8 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Eguena, 9 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 3 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Zapatua, 4 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Domeka, 5 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Astelehena, 6 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Martitzena, 7 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Eguaztena, 8 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Eguena, 9 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

Urtea bukatu arte: SANCHEZ ALVAREZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

Urtea bukatu arte: MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

URTEURRENA



**Matxelin
Dorrnsoro
Etxeberria**



2022ko azaroaren 10ean hil zen.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, azaroaren 4an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiainguruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2023ko azaroaren 3an.

ESKER ONA



**Jose Ramon
Olea Garmendia**



2023ko urriaren 31n hil zen, 84 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesia eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2023ko azaroaren 3an.

OROIGARRIA

**Adolfo Arkauz
Mondragon**



2023ko urriaren 27an hil zen, 83 urte zituela.

*Zeinen ozena den zure isilaren oihartzuna,
denontzat izan zara kuttuna,
hona hemen gure maitasuna.*

Mendiarrak familia.
Arrasaten, 2023ko azaroaren 3an.

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

*Gari deitu zuzenean edo, nahiago
baskara, jakinarazi zuen asaguru-
koopaiari gurekin nahi duzela agurtu
nahi duzela.*

*Marioren, Ibanen, Maribiren eta
Cristianen partetik, besarkada magikoak
zuzentako, bihotz sendatuko balo
dituen horietakoak. Guk baditugu gorleku
zuzentako, gure beharra duzenerako.*

Marlo, Iban, Maribi eta Cristian



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

BERRI-ZAKUA



Abel Saez eta Maria Angeles Gutierrez

"Zorionak, aitona eta amona! 52 urte ezkondu zinetenetik. Primeran pasako dugu eguna! Izugarritzko muxu handia familia osoaren partetik, baina batez ere, Izaroren eta Aitzolen partetik".



Errioxan

Oñatiko Trauti Hesirik Gabe taldeko lagunek Errioxara egin zuten irteera. Upategi batera egindako bisita gidatuaren ostean, bapo bazkaldu zuten elkarrekin.



Hodei Souto Martin

Urriak 30.
Arrasate.
Gurasoak:
Maialen
eta Jon.
Argazkian, Hodei lotan, goxogoxo. "Familiako guztion partetik, ongi etorri gure bizitzara".



Mendizaletasuna


Bergarako Pol Polen eskutik herriko ikastetxeetako 6-12 urte arteko ikasleek eta gurasoek parte hartu zuten Arantzazu aldean egindako mendi ibilaldian.

ASTEAGOIENA TELEBISTAN

**IMANOL ITUIÑOREKIN MAGIA TAILERRA**

Mago bilbotarrarekin tailerra egin dute Aretxababatan, eta bertan landutakoa erakutsiko die ikus-entzuleei.

'Hemen Debagoiena' Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00

**SORALUZE-BERGARA KROSAREN LABURPENA**

Antxintxika krosaren XVII. lasterketaren irudi onenak eta protagonista direnen adierazpenak jasoko ditu Xabier Urzelai.

'Harmailatik' Astelehena, 19:30, 21:30 eta 23:30

**'BIXI IBILI!' OÑATIN**

Bailarako herrien arteko galdera-erantzunen jokoaren hurrengo geldialdia Oñatin egingo du Aitor Agirianok.

'Bixi ibili!' Martitzena, 19:30, 21:30 eta 23:30

**GARAZI KAMIORI ELKARRIZKETA**

Joni Ubeda kazetariak elkarrizketatuko du Andoingo kazetaria, etxean, Bastero Kulturgunean.

'Elkarrizketap' Eguaztena, 19:30, 21:30 eta 23:30

**'KONTU KONTARI' ESKORIATZAN**

Jose Mari Romaratezabala *Marin* elkarrizketatuko du Imanol Beloki kazetariak, Eskoriatzan.

'Kontu kontari' Eguena, 19:30, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 3

OÑATI Odol ematea

Aurrez hartu beharko da ordua: 943-00 78 84.

Enpresagintzan, 16:30ean.

ELGETA 'Gu ere kontalari' saioa

Herriko umeak izango dira kontalari. *Liburutegian*, 18:30ean.

OÑATI 'Kakaoa eta txakolina' bisita gidatua

Gastronomia eta Lurraldea egitasmoaren baitan. Izena emateko: infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63.

Murgialdai txakolindegian, 19:00etan.

OÑATI 'Su festak' liburuaren aurkezpena

Jon Urzelai idazlearen eskutik, Burrunda Faktoriak gonbidatuta. Debalde.

Gaztetxean, 19:00etan.

ARRASATE Literatura emanaldi musikatua

Joseba Sarrionandia eta Joxe Mari Iturralde idazleekin, Anne Etchegoyen abeslariarekin, Iñar Sastre musikariarekin eta Olatz Prat kazetariarekin. Kanturako, solasaldirako, eta testu eta poesia errezitaldirako tartea izango da.

Juan Arzamendi Musika Etxean, 19:30ean.

BERGARA Telmo Esnalen bakarrizketa saioa

Debalde. *Osintxuko Txuringo tabernan*, 22:00etan.

ZAPATUA 4

OÑATI Oñatiko laburmetrai rallya

XIV.a egingo dute, antolatzaileek emandako gai baten inguruan. *Oñatin*, 08:00etan.

OÑATI Debagoiengan landutako produktuen salmenta

Gastronomia eta Lurraldea egitasmoaren baitan. *Oñatiko azokan*, 09:30ean.

OÑATI 'Artzaintzaren eta gaztagintzaren sekretuak' bisita gidatua

Gastronomia eta Lurraldea egitasmoaren baitan. Izena emateko: infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63.

Gomiztegin, Oñatin, 10:30ean

ARRASATE 'Ogia egiten' bisita

Gastronomia eta Lurraldea egitasmoaren baitan. Izena emateko: infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63.

Errastiko okindegian, 10:30ean.

OÑATI 'Kakaoa Oñatin' bisita gidatua

Gastronomia eta Lurraldea egitasmoaren baitan. Izena emateko: infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63.

Txokolateixan, 12:00etan.

BERGARA Kantu bazkaria

Nork bere instrumentuak eraman beharko ditu.

Gorlako kantinan, 13:05ean.

BERGARA XVII. Antxintxika krosa

Hamar kilometroko lasterketa. *Soraluzen*, 16:30ean.

ARAMAIO Hiru txirlo bolo txapelketa

Euskal Herriko txapelketako laugarren saioa.

Untzillan, 17:00etan.

ARAMAIO 'Micaela Portilla: templos, torres y caminos' dokumentalaren aurkezpena

2022an egindako ikus-entzunezkorako Untzillan bertan ere grabatu zituzten irudiak.

Untzillako elizan, 17:00etan.

OÑATI X. Mikopoteoa

Gastronomia eta Lurraldea egitasmoaren baitan. Izena emateko: infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63.

Arantzazuko Turismo Bulegoan, 17:15ean.

BERGARA Counter Strike txapelketa

Bigarrena izango da. *Zabalotegi kalean*, 17:30ean.

BERGARA Wolfram Encounterra

Encounterra 17:30etik 20:00etara, eta Minecraft Eraikuntza proiektuen erakusketa eta sari banaketa 20:00etan.

Zabalotegin.

ARRASATE Beldurrezko film laburren emanaldia

Gaztetxoendako.

Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

BERGARA 'Anbotoko Mari' antzezlan

Antzerkia, bideo-animazioa, interakzioa eta musika biltzen dituen antzezlan, Logela Multimediaren eskutik. Sarrerak, lau euro.

Seminarixoan, 18:00etan.

DOMEKA 5

ELGETA Bisita gidatua

Intxortako frontea ezagutzeko Izena emateko: 943-79 64 63 edo turismo@debagoiena.eus.

Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.

ARETXABALETA 'Gaztagintza eta dastatzea Urkulu aldean' bisita gidatua

Gastronomia eta Lurraldea egitasmoaren baitan. Izena emateko: infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63.

Mitarte Garai baserrian, 11:00etan.

OÑATI 'Kakaoaren bidaia' bisita gidatua

Gastronomia eta Lurraldea egitasmoaren baitan. Izena emateko: infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63.

Txokolateixan, 11:00etan.

LEINTZ GATZAGA 'Urre zuriaren paisaia' bisita gidatua

Izena emateko: infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63.

Gatz museoan, 12:00etan.

ARAMAIO '¿Qué tienen las flores?' eta 'Daisy Crazy' antzezlanak

Lehena Altraste taldearekin, eta bigarrena Pez Limbo taldearekin. *Azkoaga auzoan*, 12:00etan.

BERGARA Txistulari Bandaren kontzertua

Jose Miguel Laskurainek zuzenduta. *Osoko bilkuren aretoan, 13:00etan.*

ESKORIATZA Sexualitateari buruzko tertuliak

Sex education telesaila ikusi eta ostean solasaldia egingo dute. *Gaztelekuan, 17:00etan.*

ARAMAIO 'Nomadak' ikuskizuna

Haziara in the Mapping jaialdiaren baitan. *Kultura etxean, 18:00etan.*

OÑATI 'Flamenco etxea 2' emanaldia

Gorka Hermosaren eta Jose Luis Montonen ikuskizuna, Oñatiko Musikegunetan. Sarrerak, sei euro. *Santa Ana antzokian, 19:00etan.*

ASTELEHENA 6**ARAMAIO 'Batzen gaituzten lotura unibertsalak ehuntzen' saioa**

Afrika Miniaturan ekimenaren baitan. *Kultura etxean, 17:30ean.*

ARRASATE 'Konponbiderako giltzak' hitzaldia

Haizea Ziluagak eta Joseba Azkarragak egingo dute berba. *Kulturaten, 19:00etan.*

MARTITZENA 7**ARETXABALETA 'Sare sozialak, alkohola, janaria... Ba al dago antsietatea kentzeko beste modurik?' hitzaldia**

Leire Urza psikologoak egingo du berba. *Arkupun, 18:00etan.*

OÑATI 'Zer ari da gertatzen Palestinan?' hitzaldia

EHUko nazioarteko ikerlari Gabriel Ezkurdiak egingo du berba. *Santa Ana antzokian, 18:30ean.*

OÑATI 'Alpinismo sin ficción' ikus-entzunezkoa

Jordi Pons Sanjinesen lana emango dute, Mendi Hamabostaldian. *Zinema aretoa, Oñati, 19:30ean*



LOGELA MULTIMEDIA

BERGARA 'Anbotoko Mari' antzezlan

Antzerkia, bideo-animazioa, interakzioa eta musika biltzen dituen antzezlan taularatuko du Logela Multimedia taldeak, 3-10 urte arteko umeendako. Sarrerak, lau euro. *Bihar, zapatua, Seminarixoa, 18:00etan.*

EGUAZTENA 8**BERGARA Kafe Konpon**

Etzeko tresna txikiak konpontzeko tailerra. *San Joxepen, 16:00etan.*

ESKORIATZA Karaokea

16:45etik 18:00etara Haur Hezkuntzako umeak, eta 18:00etatik 19:15era Lehen Hezkuntzako neska-mutikoak. *Ludotekan.*

BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baserritarren garaiako produktuak erosteko aukera. *Oxironon, 18:00etan.*

OÑATI 'Nola egokitu etxeko kontsumo elektrikoa tarifa berrietara' saioa

Foru Aldundiko Argitu programaren baitan. *Zinema aretoan, 18:30ean.*

ELGETA 'Energia argitu' tailerra

Izena emateko: *argitu@gipuzkoa.eus* edo 628 530 303. *Udaletxean, 18:30ean.*

OÑATI Gaztaina jana eta bertso saio musikatua

Gaztainak, hiru euro. *Eltziako topagunean, 19:30ean.*

BERGARA 'Godland' pelikula

Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpituiluekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoa, 20:00etan.*

EGUENA 9**OÑATI Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikora bisita**

10:00etan euskaraz eta 12:00etan gazteleraz. *Artxibo Historikoan.*

ARAMAIO 'Etorkinen testigantzak' hitzaldia

Afrika Miniaturan egitasmoaren baitan. *Kultura etxean, 17:30ean.*

ANTZUOLA 'Nola elikatu mendian' hitzaldia

Garazi Abasolo nutrizionistak egingo du berba. *Torresoroan, 18:30ean.*

BERGARA 'Oso latza izan da' liburuaren aurkezpena

Xabier Mendigurenen eskutik. *Olaso dorrean, 19:00etan.*

ARETXABALETA Literatura solasaldia

Adur Larrearen *Lurbintoko ohoinak* liburuaren gaineko saioa Mikel Antzak gidatuta. *Liburutegian, 19:00etan.*

OÑATI Mendi Tour

Mendi Hamabostaldia baitan. Sarrerak, bost euro. *Zinema aretoan, 20:00etan.*

ARRASATE Penny Fleck

Kooltur Ostegunetan. Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA****Los asesinos de la luna**

Domeka eta astelehena: 19:30.

El osito Boom

Domeka: 17:00.

BERGARA**SEMINARIXOA****Un golpe de suerte**

Egubakoitza, domeka eta astelehena: 19:30.

Me he tragado un extraterrestre

Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA****O corno**

Egubakoitza eta zapatua: 22:00. Domeka: 19:30, 22:00. Astelehena: 19:30.

Rally road racer

Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA**ARKUPE****Barbie**

Egubakoitza: 22:00. Zapatua eta domeka: 19:30. Astelehena: 16:00.

Elemental

Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ**FLORIDA****Alimañas**

Zapatua eta domeka: 12:00, 21:30. Egubakoitza: 21:30. Astelehena eta martitzena: 16:30. Eguaztena eta eguena: 17:15.

Barbie

Zapatua eta domeka: 12:00, 22:00.

Book kwai eta museoaren lapurreta

Zapatua eta domeka: 12:00, 17:15. Egubakoitza: 17:15.

Campeonex

Zapatua eta domeka: 12:00.

Divertimento

Egubakoitzetik domekara: 21:15. Astelehena eta martitzena: 20:45. Eguaztena eta eguena: 17:00.

El chico y la garza

Egubakoitza: 19:00, 21:30. Zapatua eta domeka: 12:00, 19:00, 21:30. Astelehena eta martitzena: 17:00. Eguaztena eta eguena: 19:30.

Five nights at Freddy's

Egubakoitza: 17:00, 19:30, 22:00. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 19:30, 22:00. Eguaztena eta eguena: 17:00, 19:30.

Juniper

Egubakoitzetik domekara: 17:30, 19:30. Astelehena eta martitzena: 16:30, 18:30.

Eguaztena eta eguena: 17:30.

La contadora de películas

Egubakoitzetik domekara: 21:30. Astelehena: 19:30. Martitzena: 21:00. Eguaztena eta eguena: 17:00.

Los asesinos de la luna

Egubakoitzetik domekara: 17:00, 21:00. Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:00, 19:15. Martitzena: 17:00.

Mamacruz

Egubakoitzetik domekara: 21:30. Astelehena eta martitzena: 20:30. Eguaztena eta eguena: 19:30.

Trolls 3: todos juntos

Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 19:30. Egubakoitza: 17:00, 19:30. Astelehena: 18:30. Eguaztena eta eguena: 19:30.

KRITIKA**Los asesinos de la luna**

★★★★★

Zuz.: Martin Scorsese. **Herr.:** AEB (2023). **Aktoreak:** Leonardo DiCaprio, Lily Gladstone, Robert de Niro. **Iraupena:** 204 minutu.

Norabide finkorik gabe**ANTONIO ZABALA**

Los asesinos de la luna-ren istorioa XX. mendeko bigarren hamarkadan gertatzen da Ameriketako Estatu Batuetan. Osageko tribuko kideak Oklahomara bizi izatera behartu zituzten, eta hango lurraldeetan petrolio aurkitu zuten. Hala, Osage tribuko jendea aberastu egin zen eta azal zuriko amerikarrek, modu desberdinez baliatuz, haien diruaz jabetzea helburu bihurtu zuten. Filmak indiar haien diruaz jabetzeko sortutako estrategiak azaltzen ditu. Scorseseren beste film batzuekin konparatuz gero, intentsitate eta jariatortasun gutxiago du honek. Hasieran, 1920ko hamarkadako egoera nolakoa zen, zeintzuk ziren pertsonaiak eta indiarrek desagertzeko zeuden egoera

arraroak kontatzen ditu. Ematen du filmaren hitzaurrean gaudela eta barnean dauden istorioak sendotzen eta indartzen joango direla, baina minutuekurrera egin ahala, filmaren tonua ez da aldatzen. Ematen du pertsonaiek ez dutela erreazionatzen gertatzen ari denaren aurrean.

Bigarren zatian, ikerketa eta epaiketa bat dago, eta lehenengo zatiko gertaerak zehazten joango dira. Baina filma, norabide finkorik gabe, zerbait sakabanatuta eta nahasia geratzen da, filmak, kontatzeke modu zuzenagoa behar zuten. Dena den, irudiaren aldetik eta esanak filmatzeko moduaren aldetik, Scorseseren filmak erakargarriak eta ikusgarriak izaten dira.



AZKEN BERBA

MIKEL ARREGI
ASKASIBAR

Inpotentziaz

Gazan odola ari du. Israelek bere DNA genozida azaleratu du Hamasek urriaren 7an egin zuen erasoaren ondotik. Defentsa eskubidea aldarrikatuta, herri palestinarra ezabatzeko prozesuan beste urrats bat besterik ez da. Egin zuten 1948an eta 1967an, eta egingo dute 2023an: garbiketa etnikoa, okupazioa.

Netanyahu lehen ministroak argi esan du aste honetan bertan: "Gaza desberdina izango da gerra amaitzean". Gaza dagoeneko desberdina da. Nazio Batuen arabera, Israelek bere zigor operazioa martxan jarri zuenetik bertako eraikinen %45 suntsitu ditu, eta hamar mila pertsona hil, %70 emakumeak eta haurrak.

Datu beldurgarriak, tamainako triskantza eragin duen estatuari nazioarteko zigorrak jartzeko edo berau militarri jartzeko bestekoak. Ondo dakigu, baina, ez dela horrelako ezer pasako.

Europak Estatu Batuen morroi jarraituko du eta Israelen ankerkeriei epeltasunez erantzungo die. Eta zer esanik ez herrialde arabiarrei buruz, ez espero ezer egingo dutenik anai-arreba palestinarren alde.

Panorama beltz honetan, inpotentzia da inguruan gehien sumatzen dudana sentimendua. Sentimendu partekatua. Ezer gutxi egin dezakegu: amorruari eutsi eta memoria gorde. Palestina aurrera!

BUKATZEKO



Errez kooperatibako Iñaki Etxebeste, aplikazioa euskarri ezberdinetan erakusten. O.E.G.

Baso jabeendako aplikazioa da Zuk.Tantai

Errez, Tantai eta Agresta kooperatibek elkarlanean sortutako proiektua da, Euskal Herrian aitzindaria. Euren lur sailak lokalizatu, neurtu eta kudeatu ahal izango dituzte, eta kudeatzaileekin harremanetan egoteko tresna ere bada

Oihana Elortza Gorostiza ARRASATE Eskuko telefonoan zein ordenagailuan erabil daitekeen aplikazio berria da Zuk.Tantai. Euskal Herrian proiektu aitzindaria da; baso jabeek lur sailen inguruko informazio guztia eskura izango dute, eta kudeatzaileen eta jabeen arteko komunikazio bide bat ere bada. Lurraldearen gaineko informazio ezberdinak ere kon-

tsulta daitezke aplikazioaren bitartez, eta euren lur sailak lokalizatu, neurtu eta kudeatu ahal izango dituzte baso jabeek.

Errez, Tantai eta Agresta kooperatibek elkarlanean sortutako proiektua da hau. Aplikazio honen bidez, Tantaiko basoen jabeak zuzenean komunikatu ahal dira Errez kooperatibako teknikariekin. Oinarri kar-

tografiko desberdinak ikustez gain, bazkideek baso sailen inguruko datuak ere kontsultatu ahal izango dituzte.

Europa mailan ere, baso kudeaketan teknologia aldetik punta-puntako aplikazioa dela azpimarratu du Agresta kooperatibako Jose Luis Tomek, eta Errez kooperatibako Iñaki Etxebesteren esanetan bazkide era-

biltzaileei nabarmen aldatuko zaizkie euren aukerak. Zuk. Tantai aplikazioak informazio eguneratua eskainiko die Tantai kooperatibako bazkide erabiltzaile eta langileei. Aplikazioa, basoen kudeaketari loturiko erabakiak hartzeko orduan, komunikaziorako tresna bihurtuko da.

Aldaketa baso kudeaketan

Tomek eta Etxebestek garrantzi handia eman diote Zuk.Tantai aplikazioari, eta Euskal Herrian dagoen baso kudeaketan modelo aldaketa ekarriko duela diote, horrek jabeen ahalduz gain ere lagunduko duela gehituz. "Lur sailen inguruko informazio guztia eskura izango dute jabeek, eta kudeatzaileen eta jabeen arteko komunikazioa erraztuko du", esan du Tomek. Beste aplikazio batzuk egon arren, hau osatuagoa dela nabarmendu du Etxebeste: "Antzerako aplikazioak badaude, esaterako, enpresa ezberdinek barrurako mantentzen dituztenak edo beste helburu bat dutenak, baina baso jabeak inplikatzeko erabiltzen ez dago. Horretan oso berritzailea da, eta Agrestarekin egindako lankidetzan oso garrantzitsua izan da. Uste dut bazkide erabiltzaileei nabarmen aldatuko zaizkiela honekin kudeatzeko aukerak. Proiektu handi baten parte da hau".

Aramaioko Sastiñan egin dute aplikazioaren aurkezpena eta aurreratu dute Tantaiko bazkideendako erreminta gehiago eskura jarriko dituztela datozen hilabeteetan. Apurka, aplikazioa hobetzen joatea da hurrengo asteetako erronka, eta tailerrak ere eskainiko dituzte Aramaion.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

'BIXI IBILI!',
OÑATIN

AZAROAREN 7AN, MARTITZENEAN,
19:30, 21:30 ETA 23:30



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

